

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

KRISTAUAREN OTOITZA GAUR EGUN
«Zure aurpegi bila nabilkizu, Jauna» (27 [26], 8)

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN PASTORAL IDAZKIA**

1999, GARIZUMA–PIZTUERA KO PAZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA (1-5. z.)

I.- OTOITZA GURE EGUNOTAN (6-17. z.)

Zer toki hartzen du otoitzak kristauen bizitzan? (7-9. z.)

- Zenbaiten ibilbidea (7. z.)
- Etxean (8. z.)
- Kristau-elkartean (9. z.)

Krisiaren azpian (10-13. z.)

- Zertarako balio du otoitz egiteak? (11. z.)
- Konpromezua ez al da otoitzik onena? (12. z.)
- Otoitz egitea ez al da nork bere buruarekin hitz egitea? (13. z.)

Otoitz berriaren bilaketa (14-17. z.)

- Garbitu beharra (15. z.)
- Liturgi ospakizun biziagoa (16. z.)
- Ezaugarri berriak (17. z.)

II.- KRISTAUAREN OTOITZA (18-40. z.)

Jesukristoren izenean otoitz egin (19-23. z.)

- Jesusen ikasle bezala otoitz egin (20. z.)
- Jesusekin elkaturik otoitz egin (21. z.)
- Kristoren Gorputzeko atal garenez otoitz egin (22. z.)
- Kristoren bitartez otoitz egin (23. z.)

Aita dugun Jainkoari dei egin (24-27. z.)

- Jainko pertsonalarekin elkarrizketa (25. z.)

- Seme-alaben konfiantzaz (26. z.)
- Seme-alaba izatetik (27. z.)

Espirituak eraginik (28-31. z.)

- Espirituari menpeko (29. z.)
- Espirituaren laguntza (30. z.)
- Espirituaren emaitzak (31. z.)

Erreinuaren zerbitzura (32-34. z.)

- Jainkoaren Erreinuaren bila (33. z.)
- Pobreen Jainkoari otoitz egitea (34. z.)

Eguneroko bizitzatik (35-40. z.)

- Beharretik elkartasunera (36. z.)
- Bizi-pozetik gorespenera (37. z.)
- Sufrimenetik konfiantzara (38. z.)
- Errudun izatetik barkazioa jasotzera (39. z.)
- Muga-kontzientziatik gurtzara (40. z.)

III.- OTOITZA ERABERRITU BEHARRA (41-67. z.)

Otoitzaren eraginkortasuna (42-45. z.)

- Otoitzaren ondorioak (43. z.)
- Eskari-otoitzaren esanahia (44. z.)
- Probidentzian uste ona (45. z.)

Otoitza eta bizitza (46-48. z.)

- Otoitzak ekintzara garamatza (47. z.)
- Otoitz ororen froga (48. z.)

Norekin mintzatzen gara otoitzean? (49-52. z.)

- Ezin dugu nahasi Jainkoa gure sentimenduekin (50. z.)
- Jainkoak ez du uzten erabil dezagun (51. z.)
- Norantz garamatza otoitzak? (52. z.)

Jainkoa bera aurkitu otoitzean (53-56. z.)

- Jainkoaren aurrean jarri (54. z.)
- Egiazalatasunez (55. z.)
- Jainkoaren bila (56. z.)

Otoitza, sinesgabeziak jotako garai hauetan (57-60. z.)

- Jainkoa ezkutatzean (58. z.)
- Gure garairako otoitza (59. z.)
- Sinesgabeekin senidekiro elkaturik (60. z.)

Gaurko esperientziatik abiaturik egin otoitz (61-63. z.)

- Gaurko mundu honetan egin otoitz (62. z.)
- Gaur egungo hiri modernoan egin otoitz (63. z.)

Mundu zuzengabeen egin otoitz (64-66. z.)

- Behartsuen alde eta behartsuekin otoitz egin (65. z.)
- Zuzentasunak argitutako otoitza (66. z.)

Adiskidetze beharrean dagoen gizartean egin otoitz (67. z.)

IV.- OTOITZA BERRESKURATU (68-84. z.)

Jainkoarenganako gogoia piztu (69-71. z.)

- Gogoia sumatu (70. z.)
- Bihotzaren garrantzia (71. z.)

Jainkoa gurekin dela antzeman (72-74. z.)

- Jainkoa gurekin dela antzeman (73. z.)
- Jainkoa onartu (74. z.)

Zenbait jarrera (75-78. z.)

- Sakabanatua ibiltzetik barrura biltzera (76. z.)
- Axalkeriatik zinezkotasunera (77. z.)
- Ihes egitetik prest egotera (78. z.)

Nola zuzendu Jainkoarengana (79-81. z.)

- Jainkoari zuzendutako deia (80. z.)
- Lehen urratsak (81. z.)

Ilunaldian egin otoitz (82-84. z.)

- Zalantzaldian (83. z.)
- Ilunaldian oihu egin (84. z.)

V.- OTOITZA BIZIBERRITU (85-111. z.)

Askotan gertatzen den zerbait (86-88. z.)

- Zenbaiten egoera (87. z.)
- Beharrezko erabakia (88. z.)

Otoitza, adiskidetasun-esperientzia (89-91. z.)

- Adiskidetasunezko harremana (90. z.)
- Jainkoarekiko adiskidetasunaren ikasketa (91. z.)

Ahozko otoitza (92-95. z.)

- Ahozko otoitzaren garrantzia (93. z.)
- Gure errezoak biziberritu (94. z.)
- Gurutzearen seinalea (95. z.)

Otoitz egin bizitzatik (96-98. z.)

- Otoitza, bizitzaren ispilu (97. z.)
- Egoera desberdinetatik (98. z.)

Ebanjelioaren irakurketa (99-101. z.)

- Argibide praktikoak (100. z.)
- Jainkoaren Hitza entzun (101. z.)

Otoitza bizitzari buruz (102. z.)

Kristau-gogoeta (103-105. z.)

- Sinesmenetik gogoeta egitea (104. z.)
- Nola egin gogoeta (105. z.)

Zenbait otoitz (106-111. z.)

- Andre Mariari buruzko otoitza (107-108. z.)
- Santuei egindako otoitza (109-110. z.)
- Hildakoen aldeko eskaria (111. z.)

VI.- KRISTAU OTOITZA ZAINDU (112-147. z.)

Bizitza pertsonalean (113-124. z.)

- Barne-isiltasuna zaindu (114-117. z.)
- Otoitzaren maiztasuna (118-120. z.)
- Otoitzaren kanpoko baldintzak (121-124. z.)

Etxean (125-129. z.)

- Gurasoen otoitza (126. z.)
- Seme-alabei otoitz egiten irakatsi (127. z.)
- Familian otoitz egin (128-129. z.)

Kristau-elkartean (130-137. z.)

- Elkarteko otoitza (131-132. z.)
- Otoitzerako elkarketak (133-134. z.)
- Orduen otoitza (135. z.)
- Eukaristiaren gurtza (136-137. z.)

Otoitz egin irakatsi (138-147. z.)

- Parrokia (139-141. z.)
- Otoitz-taldeak (142. z.)
- Elkarte kontenplalariak (143-146. z.)
- Apaizen otoitza (147. z.)

SARRERA

1. Azken urteotako zenbait Pastoral Idazkitan eduki izan dugun kezka, fedea era berrituan bizitzera eragitea izan da, erlijio-krisiak jotako garai hauetan. Orain bi urte, hain justu, Idazki bat idatzi genizuen honako izenburu honekin: “*Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*”. Helburu zehatz bat genuen Idazki hartan: fedea berregiten laguntzea, Jainkoarekin topo egiteko gaur erabil ditzakegun bideak aurkituz.

2. Aurten urrats bat gehiago egin nahi dugu. Denok dakigu fedea era askotara ahuldu daitekeela, eta itzali ere bai; baina berpiztu, Jainkoarengana bene-benetan itzuliz bakarrik berpizten da. Horregatik, ezin daiteke fedea piztu eta indartu, gure otoitza berritu gabe. Hainbat aldiz esan izan dizuegu, nolako garrantzia daukaten Jainkoa benetan bilatzeak, Harekiko harremana garbitzeak, barruko ardurak edota bihotz-sakonean Beraren Hitza entzuteak gaur gure fedea berritzeko. Eta hauetako ezer ezin da bizi, gure otoitza berreskuratu eta garbitu gabe.

3. Ziur gaude gure Elizen eta kristau-elkarteen biziberritzea, otoitzaren indarberritzearekin loturik dagoela, neurri handi batean. Horrexegatik idazten dizuegu Idazki hau. Gure asmoa ez da teologi tratatu bat eskaintzea; baina bai *kristau-otoitza zer den* hobeto aurkitzen laguntzea. Gure helburua ez da otoitzarako metodo eta teknikak zuei irakastea; *nola egin dezakegun gaur otoitz* era jatorrean, hori da aditzera eman nahi dizueguna. Errealismoz hitz egin nahi dizuegu, otoitz egiteko dauzkagun zailtasunak kontuan hartuz, bai geure-geureak bai ingurugirokoak. Geure bizitza pertsonalean, gure etxean eta kristau-elkartean *egin ditzakegun egiazko urratsak* proposatu nahi dizkizuegu. Hitz batean, Jesusen gonbidapen hura entzun nahi dugu gure egunotan ere: “Zaudete erne eta egin otoitz” (Mt 26,41).

4. Idazki honetan ez dugu Eukaristiaz edo beste liturgi ospakizunez luze-zabal aritzerik izango. Badakigu, hala ere, otoitz pertsonal bizi eta benetakoa izan daitekeela, kristau-elkartean ospakizunak sustatzeko biderik onena.

Gure artean otoitz egiten zaio Jainkoari. Gure elizbarrutietan kontenplazi-ora emanik bizi diren elkarreetatik gorespen eta esker ona ematen zaio Jainko santu eta onari, guztioi gogoraraziz norantz zuzendu behar dugun gure bihotz sinestreduna. Zenbait etxetan otoitz egiten zaio Jainkoari. Ez dira gutxi fedez dei egiten dioten kristauak. Horiek denak ere gogoan izan ditugu Idazki hau idaztean. Krisialdiak ez du itzali horien bihotzetan otoitzaren arnasa.

Hala eta guztiz ere, beren fedea ahuldurik, otoitza baztertzen eta zapuzten joan direnengana zuzentzen dugu bereziki gure ardura; une egokia da otoitz hori era berrituan berreskuratzeko. Bestalde, otoitz egiten jarraitu arren, ohiturakeriaz eta mekanikoki egiten dutenengana iritsi nahi genuke; beti egin daiteke topo Jainkoarekin era biziago eta jatorragoan.

Gure Idazkiak, gainera, adore emateko hitza izan nahi luke, Jainkoaren desioa sentitu eta bihotzez bilatzen dutenentzat. Krisialdiaren barnean iruditzen zaigu, Jainkoa bilatzeko kezka berria sumatzen dugula gure artean. Kezka hori da otoitzarekin sustatu nahi genukeena. Bat egiten dugu, horrela, Joan Paulo II.aren gogoarekin, “kristauon fedea eta testigantza sendotzea” proposatzen baitigu Jubileorako lehen helburu gisa, eta “gero eta otoitz-giro bero eta sendoa-goan bihozberritze eta eraberrikuntza pertsonala” eragitera dei egiten digu¹.

5. Pastoral Idazkiaren hasieran, errealitatera hurbiltzen saiatu nahi genuke: *nola egiten dugu otoitz gaur egun?, krisian al dago otoitza?, ba al da berrialdiaren ezaugarririk?* (1. atala). Gauzak argitzeko, aurrena egin beharrekoa kristau-otoitza zer den ikustea da eta zeintzuk diren beraren ezaugarri nagusiak: *kristauok nola egiten diogu otoitz Jainkoari?* (2. atala). Beharrezkoa da, gainera, otoitz egin nahi duenak aurkitzen dituen kritika eta eragozpenei erantzutea: *nola egin otoitz gaur egun benetan?* (3. atala).

Hori aztertu ostean bakarrik eskaini ahal izango ditugu argibide batzuk, otoitza baztertu dutenei berreskuratzen laguntzeko: *nola egin berriro topo Jainkoarekin?* (4. atala), eta ohiturakeriaz otoitz egiten jarraitzen dutenei indarberritzen laguntzeko: *nola egin otoitz hobeto eta egiazaletasun gehiagoz?* (5. atala). Eta azkenik galdetzen dugu, nola zaindu dezakegun otoitza geure bizitza pertsonalean, etxeetan eta kristau-elkarteetan (6. atala).

¹ *Tertio millennio adveniente*, 42. zenb.

I.- OTOITZA GURE EGUNOTAN

6. Jainkoarengan benetan sinesten duenak harremana izaten du Berarekin. Otoitza du bere fedearen azalpena eta arnasa. Horregatik, fedeari krisialdia datorkionean, otoitza ere krisian jartzen da. Eta otoitza gizartean edo pertsona baten bizitzan mututzen denean, horrek esan nahi du erlijio-bizitza itzaltzen ari dela.

Zer toki hartzen du otoitzak kristauen bizitzan?

Garai batek bizi duen erlijiotasuna ez du ezerk nabarmentzen, otoitz egiteko erak bezain ondo. Herri baten erlijioa ezagutu nahi denean, biderik argiena ez da sinesten omen duena aztertzea, nola otoitz egiten duen begiratzea baizik. Nola egiten da otoitz gure artean?

• **Zenbaiten ibilbidea**

7. Dudarik gabe, asko dira otoitz egiten duten pertsonak, eta benetan otoitz egiten dutenak. Erlijio-krisiak, otoitza hondatu ordez, errezoak eta praktikak garbitu egin dizkie, horien bidez Jainkoaren benetako gogoak piztuz. Ez da, hala ere, zaila, otoitz-krisi larria sumatzea gure artean; ez erlijio-praktika utzi dutenen artean bakarrik, baita kristau-herri osoan eta bizitza sagaratua bizi duten taldeetan ere, hauentzat otoitza lantzea beren konpromezuaren atal erabakigarria izan arren.

Krisiaren ezaugarriak era askotakoak dira. Kristau batzuei otoitz egitea zer den ahazten ari zaie, besterik gabe. Urteotan zehar bazterrera utzi dituzte, garai batean beren fedea janaritu zieten otoitzak, gaur ezer esaten ez dieten otoitzak. Ohiko otoitzera tradizionalari ez diote biderik ikusten, baina haren ordez ez dute ezer hoberik bilatu. Gaur egun Jainkoarekiko harremana blokeatuta edo daukate. Harekin nola hitz egin ez dakitela gelditu dira.

Batzuei, Jainkoa errealitatek gabeko zerbait bihurtu zaie; Aita deituerik ez dagoen zerbait; ez da erraza, gure arazo eta sufrimenduetatik aparte eta horiekiko axolagabe ikusten den urrutiko izaki lausotu bati uste onez dei egiten. Beste batzuei, otoitza gezurrezkoa iruditzen zaie; bazterrera utzi behar den ariketa gainditua; bere buruaren jabe den pertsona heldu batek ez luke era horretako “erlijio-jolasik” behar bere bizitza antolatzeko.

Badira, era gustagarriagoan eta atsegin handiagoz bizitzeko gogoak harrapaturik, otoitza gauza arrotz eta tristetzat hartzen dutenak; gehienez ere, une zail edo larrietarako baliabide izan daiteke otoitza, baina ez biziera libre eta zorionekoa sortzeko iturri. Badira, baita ere, otoitza alde batera utzi dutenak, Jainkoarekin topo ez egiteko; beren moral nahasmenak edo zabarkeriak Jainkoagandik ihes egitera eraman ditu; ez dute jakin, beren bekatutik edo leialtasun ezetik Jainkoarekin topo egiten.

Kontua da, arrazoi askorengatik eta bizikizun desberdinengatik, ez direla gutxi beren bizitzatik otoitza ezabatu dutenak edo hutsaren hurrengotzat daukatenak. Askotxok ez daki Jainkoari otoitz egiten, ezin du edo ez du nahi.

- ***Etxean***

8. Zenbait etxetan, familian bildurik otoitz egiten jarraitzen dute, baina beste askotan erabat galdu da otoitza. Fede ahul eta konbentzimendu gutxikoa bizi dute, bere azpian axolagabekeria eta arretarik eza gordetzen duena, Jainkoaren presentzia lausotzen delarik.

Gehienbat ezkutatu da, seme-alaben fedea moldeatzen zuen etxeko otoitz hura: goizeko eta arratseko otoitzak, mahaiaren bedeinkapena, iluntzean familian errezatutako arrosarioa. Erlijio-kutsuko ezaugarri eta irudi asko ere ezkutatu dira. Guraso askok ez diete beren seme-alabei otoitz egiten irakasten, ez dakite edo ez zaie inporta. Familia askotan seme-alabei erakusten zaien bakarra, erlijio-isiltasuna eta axolarik eza da.

- ***Kristau-elkartean***

9. Adierazgarria da kristau-elkarte zenbaitetan, eta ez gutxitan, gertatu dena ere. Azken urte hauetan, galdua den erlijio-giro bati zegozkion ohiko debozio-erak kenduz-kenduz joan gara, eta ez gara gai izan gure garaiei dagozkien era berriak sortzeko. Bederatziurren, hirurren eta errezo-jardunak bazterrera utzi dira, eta alde batera laga benetan sustraituak zeuden jarduerak, hala nola: arrosarioa, Sakramentu Santuaren bedeinkapena edo gurutze bidea, ezerekin behar bezala ordezkatu gabe. Leku askotan ia dena Eukaristi ospakizunera mugatua geratu da. Bestalde, eliza askotxo itxita egoten da egunean zehar, eta fedunek ezin aurkitu dute “otoitz-etxe” bat.

Balio handikoa da, dudarik gabe, predikuan, ospakizunetan edo katekesian egin den ahalegina; baina ez da beti neurri berean zaindu otoitzerako bidea. Kristau askori ez dio inork sekula irakatsi otoitz egiten. Aitortu beharra daukagu, orokorrean gutxi edo eskasa dela, otoitz egiten irakasteko parroketan egiten dena.

Erraz nabari daiteke, bestalde, batzutan ez dela behar bezala zaintzen, kristau-elkartean bizikien parte hartzen dutenen barne-bizitza. Gehiegizko jardun beharrak gainditurik eta barneko janaririk gabe, fedearen testigu eta pastoralgintzaren eragile baino gehiago “funtzionario” bihurtzeko arriskua dute.

Krisiaren azpian

10. Beste garaietan ere izan ditu otoitzak bere krisialdi eta zailtasunak. Sekula ez da erraza izan, behin ere aurpegia ikusi ez zaion Jainko horrekin harremanetan bizitzea. Jainkoa ikusezina da, eta guk ikusi eta konprobatu egin nahi dugu; Jainkoa ulertezina da, eta guk jaso eta ulertu egin nahi dugu. Oraingo krisiaren azpian badira, hala ere, gaur egun era berrian edo sentiberatasun bereziz bizi ditugun zailtasunak.

- ***Zertarako balio du otoitz egiteak?***

11. Ez dira gutxi galdera hau egiten dutenak. Balorazio-irizpide nagusi eta ia bakartzat eragintasuna eta errendimendua onartzen dituen kulturean, ez da batera harrizkoa otoitzaren balioaz galdetzea. Ekintza da garrantzizkoa, ahalegina eta lana; emaitzak dira erabakigarriak. Pragmatismo horren ikuspuntutik, otoitza “balio ez duten” gauzen barrutian kokatzen da. Hainbeste egiteko dagoenean, otoitzean jardutea ez ote da denbora alferrik galtzea?

Otoizgilearen beraren esperientziak ere hori bera esaten duela ematen du askotan. Honela kexatzen da salmogilea: “Egunez deika ari nauzu, eta zuk ez entzuten; bai gauzez ere, eta ez dut atsedetik aurkitzen” (Sal 22 [21], 3). Zertarako Jainkoari deika aritu? Ez du ematen Beragana jotzen dutenen alde asko arduratzen denik; ez da ikusten, injustiziak konpontzeko edo ezbeharrak saihesteko azaltzen denik. Ez al zaio inporta gure bizitza? Ez dugu galdera hau alde batera utzi behar. Askok hain gordin sentitzen duten zailtasun honek lagun diezaguke, egiazko eragintasuna eta kristau-otoitzaren balioa zertan datzan aurkitzen.

- ***Konpromezua ez al da otoitzik onena?***

12. Horrela esan izan da behin baino gehiagotan gure artean: “otoitzik onena Konpromezua da”, “bizitzarekin egin behar da otoitz”, “dena izan daiteke otoitz”. Esaldi hauek badute beren egia, otoizkera intimista eta bizitzatik urrundu kritikatzeko dutenean; baina gezurrezkoak eta kaltegarriak dira, otoitza utzi edo ezabatzea estali nahi dutenean. Jesusek esan zuen: “Niri ‘Jauna, Jauna!’ ari zaizkidanak ez dira guztiak sartuko zeruetako erreinuan; zeruan dagoen nire Aitaren nahia egiten dutenak baizik” (Mt 7,21); baina Jesus horrek berak esan zuen “beti otoitz egin behar dela” ere (Lk 18,1).

- ***Otoitz egitea ez al da nork bere buruarekin hitz egitea?***

13. Beharbada, askotxoren otoitza maltzurki jaten ari den galdera, era honetara zehatz daiteke: Jainkoarekin hitz egiten ari garela esaten dugunean, norekin ari gara hitz egiten benetan? Freudiar pentsamoldearen zabalkundeak, erlijio-esperientziaren ahultzeari loturik, era berrian zalantzan jarri du otoitza. Susmo txarrak harrapatu du zenbaiten otoitza, eta ez gutxirena: zertan ari da otoitz egiten duena, ikusten ez duen eta erantzuten ez dion norbaiti ari zaioenean? Jainkoarekin hitz egiten jardun arren, ez al dago bere barruan itxita? Ustez hitz egiten dion Jainko hori, ez ote da bere buruaren luzapena, bere ilusioak eta fantasiak islatzeko erabiltzen duen ispilua?

Susmo hau barneratu duenean, zenbaiti bertan behera erori zaio bere erlijioa. Eta ez dute asmatzen otoitz egiten. Iruzurra eta patologia iruditzen zaie. Otoitza gezurrezkoa izan ote daitekeen beldur hau, hala ere, garbitzailea eta osasungarria gerta daiteke. Egia da egiazkoena ematen duen otoitzak estali eta indartu ditzakeela bere barnean tranpa, auto-iruzur eta nahasmenak; baina orain-txe, hain justu, gizakiaren ezagutza hobeak argiturik, hobeto senda eta garbi dezakegu Jainko biziarekiko gure komunikazioa.

Otoitz berriaren bilaketa

14. Oker jokatu genuke otoitzaren krisiaz bakarrik hitz egingo bagenu. Gehiago oraindik. Une honetan, askotxorengan otoitza berpizteko beharra eta gogo ikusten da. Ez da egia, bihotza Jainkoarengana jasotzeko, gure garai hau beste batzuk bezain onuragarria ez dela. Gaurko gizon-emakumeei barrutik benetan sortuko zaien otoizkera bilatu, hori da egin behar duguna.

• *Garbitu beharra*

15. Otoitzak bizirik jarraitzen du pertsona askorengan. Otoitz hori askotan “interesatua” izango da, eta oso erlijiosoak ez diren jarreraz kutsatua. Oharkabean errepikatzen diren formulaz egina izango da, sakontasun handirik gabea. Otoitz apal eta distira gabea. Beren burua gaizki ezagutzen duten eta Jainkoarekin hitz egiten ez dakitenen errezoa, ez baitakite ez beren buruarekin ez besteekin hitz egiten, era baldarrean eta kostata ez bada.

Otoitz honi ez diogu bere balioa kendu behar. Eliz praktikatik urrutiratu diren pertsonak horrela otoitz egiten jarraitzen dute beren bihotz-barruan. Horrelakoa da gehiengoaren otoitza munduko erlijio guztietan. Eta giza bihotza eratu duen Jainkoak ez dauka inolako arazorik otoitz hori ulertu eta onartzeko. Horrek, hala ere, ez digu galdera hau egitea galarazi behar: pertsona horiek ez al daukate bide berriak ezagutzeko eskubiderik, era biziago, beroago eta pozgarriagoan Jainkoarekin topo egiteko?, ez al dute ezagutu behar gorespena, esker ona eta gurtza ere?, ez al dugu ahalegina egin behar otoitz hori, askotan geurea eta guztiena dugun otoitz hori, garbitu eta berpizteko?

• *Liturgi ospakizun biziagoa*

16. Azken urte hauetan ahalegin handia burutu da, liturgi ospakizunari kristau-bizitzan zor zaion leku ezinbestekoa emateko. Eukaristiak, zehazki, “kristau-elkartearen bizitzaren ardatz eta gailur” (*Christus Dominus*, 30. zenb.) izan behar du. Baina ez gara beti ohartzen, otoitz pertsonala egiteko eta Jainkoarekin komunikatzeko ohitura falta baldin bada, ez dela hain erraza ospakizunean parte hartzea “era bizi, bete eta ohartuan”. Alderantziz, fededunak esperientziaz ezagutzen duenean eskaera-otoitz jatorra, esker ona edo Jainkoaren gorespena, askoz jantziago dago liturgi ospakizunean parte hartzeko.

Horregatik pozik ikusten dugu, nola hasi diren parrokiak, hainbestetan itxita eduki dituzten beren elizetako ateak irekitzen, fededunei Jaunaren aurrean otoitz isil eta bildua egiten uzteko; nola sustatzen ari diren liturgikoak ez diren bestelako otoitz-esperientziak eta nola eratzen dituzten topaketak Jainkoaren Hitza elkarrekin entzuteko. Askotxok hor ikas dezake otoitz egiten, hausnartzen eta Haren ahotsa entzuteko isiltasuna egiten.

• *Ezaugarri berriak*

17. Pozik ikusten ditugu, baita ere, Jainkoaren bilaketa erakusten duten ezaugarri berriak. Jainkoaren misterioarekin bizikiago topo egiteko, beren etxeetan edo monasterio eta otoitz-lekuetan, isiltasun-giro bildua bilatzen duten fededunengan pentsatzen ari gara. Ikusten dugu, gure artean sortzen ari direla

otoitz-taldeak, espiritualitate-mugimenduak, otoitz-tailerrak eta bibli topaketak; ez dira gutxi bibli topaketa hauetan egiazko otoitz-eskola aurkitu dutenak, bertan Jainkoaren gogoa sortu eta Berarekiko harreman berria indartzen zaielarik. Horiei arnasa emateko eta bidea argitzeko hitza izan nahi du gure Idazki honek.

II.- KRISTAUAREN OTOITZA

18. Otoitzak erdigunea hartzen du erlijio orotan. Otoitza da erlijio-jarreraren lehen azalpena, Misterioaren presentziak pertsonarengan sortzen duen erantzuna. Horrexegatik dago giza bihotzean hain errotua. Erlijio guztietan egiten zaio otoitz Jainkoari. Laburki azalduko dugu, nola egin behar dugun otoitz kristauok, hau da: Jesu Kristorengan gizon egin eta agertu den Jainkoaren misterioak zer erantzun eragiten duen fededunarengan. Ez dugu ahaztu behar, badela Jesusen jarraitzaileen otoitz propioa, kristauok gaur ere ikasi behar duguna, harako ikasle hark, Maisua otoitzean ikusita, eskari egin zion jarrera berarekin ikasi, alegia: “Maisu, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsien bezala” (Lk 11,1).

Jesukristoren izenean otoitz egin

19. Kristauok “Jesusen izenean” egiten dugu beti otoitz. Ez gara Jainkoarengana bakarrean zuzentzen. Ez dugu bilatzen Harenganako ailegaera zuzena. Gure bidea beti Jesusengandik igarotzen da, Semearengandik, Harengan agertu baitzaigu Jainkoa, Aita on eta hurbileko. Gure lehen eginkizuna “Jesusen izenean” otoitz egiten ikastea da.

• *Jesusen ikasle bezala otoitz egin*

20. Jesusen izenean otoitz egitea, beste ezer baino lehen, Jesusen ikasle bezala otoitz egitea da. Kristauen otoitza Jesusen segizio leialetik sortzen da. Kristauak ez dio Jainkoari nolanahi otoitz egiten, bere barruko joaldiei nahi bezala jarraituz. Jainkoari hitz egiteko eredia Jesus da. Horregatik, ahaleginak egiten ditu fededunak, Jesusen espiritu eta moldeari dagokion bezala otoitz egiten, Jesusek Aitaren aurrean izan zituen sentipen eta jarrera berberak bultzaturik. Bada zer-bait ahaztu behar ez genukeena: otoitz egiteko formula, metodo eta molde guztietan zehar, kristauok otoitz bat bakarra egiten dugu: Jesusek irakatsi zigun otoitza, “Gure Aita”, Jesusi jarraituz Jainkoaren Erreinua fedez bilatzen dutenen otoitza.

• *Jesusekin elkaturik otoitz egin*

21. Beste urrats bat egin dezakegu. Jesusen izenean egiten den otoitza, guregan bizi den Jesusen Espirituak sustatu, eragin eta bultzatzen duen otoitza da. San Pauloren hura esan dezakegu bakoitzak: “Bizi naiz, ez ni, ordea; Kristo bizi da niregan” (Ga 2,20). Kristok indartzen du eta Berak eusten dio gure otoitzari: “Niregan bazaude, eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen guztia, eta izango duzue Aitak ni maitatu nauen bezala, hala maite izan zaituztet Nik; zaudete nire maitasunean” (Jn 15,7.9). Edozein egoeratan, eskatzean edota eskerrak ematean, barkazioa eskatzean edota Jainkoa gorestean, gure otoitza Jesusekiko gure elkartasunetik sortzen da. Gure otoitzaren iturria Kristo da, ikusi ez dugularik ere maite dugun eta oraingoz ikusten ez badugu ere sinesten dugun, Kristo hori (ikus 1 Pe 1,8).

- ***Kristoren Gorputzeko atal garenez otoitz egin***

22. Horrexegatik, hain justu, Kristoren izenean otoitz egitea, Beraren Gorputz den Elizaren atal bezala otoitz egitea da. Hauxe da Jesusen agintzaria: “Benetan diotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute lur honetan zerbait eskatzeko, emango die zeruetan dagoen nire Aitak. Izan ere, bi edo hiru lagun nire izenean bildurik dauden batzarrean, han nago Ni haien erdian” (Mt 18,19-20). Kristoren Espirituak eraginik bizi diren guztiakin elkartasunean egiten dugu beti otoitz kristauok. Otoitz pertsonala bera ere, ezkutuan dagoen Aitaren aurrean bakarka egiten duguna (ikus Mt 6,6), Kristoren bitartez iristen da Aitarenganaino eta, horrexegatik, beraren Gorputza osatzen duten guztiakin batasunean egina da. Hori dela eta, kristauak ezin dezake otoitz egin, besteengana anaikiro zabalduz ez bada. Jesusen izenean egiten den otoitzak, barkazio eta adiskidetzera irekitzea eskatzen du: “Zutik otoitzean ari zaretelarik, norbaiten aurka zerbait baldin baduzue, barka iezaiozue, zeruetako zuen Aitak ere barka diezazkizuen zuen bekatuak” (Mk 11,25).

- ***Kristoren bitartez otoitz egin***

23. Esaten ari garen honek guztiak honetan du bere sustraia: Kristo dugula Bitarteko bakarra Aitaren aurrean. Bera da otoizgile nagusia, otoizgile bakar eta egiazkoa. Berpizturik, “beti bizi da otoitz egiteko” gizadi osoaren alde (Heb 7,25). Gure zabarkerien artean eta gure sinesmena ahul eta kaskarra izan arren, badakigu “hor dugula gure bitarteko Aitaren aurrean Jesu Kristo, Zintzoa” (1 Jn 2,1). Otoitz egiten dugunean, ez dugu Kristok Aitari izadi osoarentzat zuzentzen dion otoitz horretan parte hartu besterik egiten. Haren otoitzetik hartzen dute beren balioa, esanahia eta sakontasuna gure otoitz eta eskariak. Horregatik, Kristoren izenean egiten den otoitza otoitz unibertsala da, munduko gizon eta emakume guztiei irekia, baita etsai senti ditzakegunei ere. Liturgi otoitzak burutzeko erabiltzen dugun formula hori, “Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez”, ez dira hitz hutsak, ohiturakeriaz esatekoak. Astiro esan behar ditugu hitz horiek, gure kristau-otoitzaren egiazko edukia adierazten baitute.

Aita dugun Jainkoari dei egin

24. Kristauen otoitzaren ezaugarriarik berezien eta pozgarriena, Jesus beragandik dator, Jainkoari Aita esaten irakatsi baitigu seme-alaben konfiantzaz, izatez halaxe garelako: “Otoitz egitean, esan: ‘Aita’” (Lk 11,2). Akats handia izango litzateke otoitz hau itxuragabetzea edo osagai arrotzez ordezkatzeta, zeruko Aitarekin bizi beharreko gure topaketa pozgarria ahularaziz.

- ***Jainko pertsonalarekin elkarrizketa***

25. Kristauaren otoitza, giza bihotzaren nahientzako arduratsu eta haren otoitza entzuteko prest dagoen Jainko pertsonalarekin egiten den elkarrizketa da. Barealdi batera edo “jainkotasunaren sakonean murgiltzera” eramaten duen hausnarketa edo meditazioa ez litzateke artean Jainko gure Aitarekin topo egitea izango. Ariketa fisiko-espiritual zenbaitek sortzen duen baretasun eta ongi-zatea ere ez ditugu nahastu behar Jainkoarekiko kristau-komunikazioarekin, ariketa horiek izan dezaketen balio sendatzailea aitortuz ere. Teknika batzuen

bidez lortzen den “barne-hustasunak”, bestalde, ez dauka berez erlijio-balio kristaurik, pertsona Jainko Aitaren misterio pertsonalerantz zuzentzen ez bada.

Dei sutsuz, eskari ustetsuz eta Jainko-egarriz osaturiko salmoen otoitzak egoki asko bideratzen gaitu kristau-otoitzari dagokion berezko girora: “Begira niri, ene Jainko, eta nitaz erruki, bakarrik bainago, eta errukarri” (Sal 25 [24], 16). “Zure aurpegi-bila nabilkizu, Jauna, ez niri ezkuta aurpegi hori” (Sal 27 [26], 8-9). “Eskerrak emango dizkizut beti... hain ona zarelako” (Sal 52 [51], 11).

- **Seme-alaben konfiantzaz**

26. Jainko Aita helburutzat edukiz otoitz egitea, beti seme-alaben konfiantzaz dei egitea da. Jesusek Jainkoari hitz egitean beti “Abba!”, “Aita!” esanez hitz egiten dio, eta, jarrera horrekin bat eginez, gu ere, “Semearengan seme-alaba” sentituz, izen bera esatera ausartzen gara. San Paulok gogorarazten digu: “Ez duzue hartu morrontzarako espiritua, berriz ere beldurrean erortzeko; seme-alabatzako espiritua hartu duzue, eta Horrek hots eginarazten digu: ‘Abba!’ Aita! Espiritu horrek gure espirituarekin batera aitortzen du, Jainkoaren seme-alaba garela” (Erm 8,15-16). Horregatik, kristauak ez dio erreztatzen urrutiko Jainko bati, hitz-jario luzez hura informatu eta konbentzitzeko. Otoizkera hori, Jesusek dioenez, ez da bere ikasleei dagokiena. Guk Aitari egiten diogu otoitz, eta “Hark badaki zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen” (Mt 6,8). Azken gabe maite gaituen Aitari: “Zuek gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago emango dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak, Berari eskatzen dizkiotenei!” (Mt 7,11). Aita eta ama zarenok, inork baino hobeto ulertzen dituzue Jesusen hitz horiek.

Horregatik, kristauaren otoitza ez da sekula erraza, baina beti xumea da. Aski da haurraren bihotzez Jainkoari dei egitea. Ez da Jainkoaren aurrean “handi itxurarik” egin behar. Gure maskarak erantzi eta Haren maitasun errukitsuan uste izan. Bera agertzen zaie, ez jakintsu eta adituei, “jende xumeari” baizik (ikus Mt 11,25).

- **Seme-alaba izatetik**

27. Jainko Aitari otoitz egiteak ez gaitu umetzen. Alderantziz, gure bizitzarekiko erantzukizun gehiago ematen digu. Ez diogu Jainkoari otoitz egiten gure arazoak konpon diezazkigun. Otoitz egin eta erne irauten dugu, gure “haragi makala” indartzeko eta Aitaren nahia egiteko hobeto prestatzeko (ikus Mt 26,41). Kontua ez da Jainkoa liluratu eta konbentzitzea, aldatu eta gure desioak bete ditzan. Otoitz egiten baldin badugu, Jainkoaren desioak entzunez geu aldatzeko egiten dugu. Ez diogu eskatzen bere nahia alda dezala, gurea egiteko. Eskatzen dugu “egin bedi zure nahia”, hori baita, azken batean, guretzat egiaz on dena. Otoitz egiten dugu, Aitaren nahia leialtasun gehiagoz entzun eta betetzeko. Honela egiten zuen otoitz Jesusek: “Aita, ez bedi nire nahia egin, zurea baizik” (Lk 22,42).

Aitarekiko leialtasun-espiritu honek eraginik, Jesusen ikasleak guztiekiko maitasunera irekitzen dira. Ezin dakiok Jainkoari Aita esan, guztien anai-arreba sentitu gabe. Seme eta alaba izatean oinarritzen da anai-arreba izatea. Ez dio bakoitzak bakardadean “bere Aitari” otoitz egiten. “Gure Aitari” egi-

ten diogu otoitz, guztion Aitari, inor bazterrera utzi gabe. Horrela nahi zuen Jesussek: “Maita itzazue zeuen etsaiak, eta egin otoitz erasotzen zaituztetenentzat, zeruetan dagoen zuen Aitaren seme eta alaba izan zaitezten; Hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten euria” (Mt 5,44-45).

Espirituak eraginik

28. Kristau-otoitz hau ez da gizakion betebeharra, ezta gure lorpena ere. Beste ezer baino lehen, grazia da, dohaina. Ekimena Jainkoarena da. Berak eragiten die gure bihotzei. Beraren Espirituak ematen dio arnasa egiazko otoitzari. Otoitz egin, Espirituak eraginik bakarrik egin dezakegu.

- ***Espirituari menpeko***

29. Jainkoaren Espiritua gutako bakoitzaren baitan bizi da. Presentzia horretaz ardura izan dezakegu, edota inolako arretarik jarri gabe bizi gaitezke, Espirituaren egintza onar dezakegu edo zapuztu, baina Jainkoaren Espiritua beti hor dago, “bizi-emaile” pertsona bakoitzarengan. “Jainkoaren maitasuna gure bihotzetara isuria dago, eman zaigun Espiritu Santuaren bitartez” (Erm 5,5). Ongi otoitz egiteko, geure barruan entzun behar dugu Jesusen Espirituak Aitari egiten dion otoitza: “Bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak zuen bihotzetara, ‘Abba!’, Aita! deika ari dena” (Ga 4,6). Otoitzaren gora-behera ez dago jakitean edo tekniketan; Jainkoarengana erakartzen gaituen Espiritu horri barrutik aditu eta erne egotean baizik. Hau da aurren-aurrena ikasi behar duguna: “Egizue otoitz Espiritu Santuarengan eta iraun ezazue Jainkoaren maitasunean” (Jds 20-21).

- ***Espirituaren laguntza***

30. Guk ez dakigu ongi errezatzen. Bizikizuna falta zaigu, esperientzia, eta ohi-turakerian erortzen gara. Ez dakigu zer egin, behar bezala otoitz egiteko. Espirituak bideratu eta alda dezake gure otoitza: “Espiritua datorkigu gure ahuleriaren lagun, guk ez baitakigu zer eta nola eskatu; Espirituak berak eskatzen du, ordea, gure alde, esan ezin halako intziriz” (Erm 8,26). Berak laguntzen digu Jainkoa gurekin dagoela jabetzen: “Honetatik ezagutzen dugu Jainkoa gurekin dagoela: eman digun Espiritutik” (1 Jn 3,24). Berak erakusten digu pixkana-pixkana Jainkoaren egia. Haren Hitza jaso eta barneratzera eramaten gaitu. “Egiaren Espirituak zuzenduko zaituzte egia osoraino” (Jn 16,13).

- ***Espirituaren emaitzak***

31. Kristauak “orduero egiten du otoitz Espirituarengan” (ikus Ef 6,18). Otoitz hori ez da formula hutsa, ez da hitzak esatea edo errezitazioa. Ez da “hilarazten duen letra, bizia ematen duen Espiritua baizik” (2 Kor 3,6). Otoitzari benetan bizia ematen diona ez da metodo edo bide berriak bilatzea. Hori guztia garrantzizkoa izango da, baldin eta “espirituz eta egiaz” (Jn 4,23) otoitz egiten laguntzen badigu. Otoizkera horrek bakarrik egiten gaitu kristau. Espirituaren emaitzak haxiarazten ditu gure baitan: “maitasuna, poza, bakea, tolerantzia, samurtasuna, bihotz zabala, leialtasuna, xumetasuna” (Ga 5,22). Horregatik, Jainkoari

lehen mailan eskatu behar dioguna “Espiritua” da (ikus Lk 11,13). Berak aldaturko du gure otoitza.

Erreinuaren zerbitzura

32. Kristauak ez dio edozein Jainkori otoitz egiten. Gizakien artean bere maitasuna eta justizia gailenarazi nahi dituen Jainko Aitarengana jasotzen du bere bihotza. Dei egiten dion Jainkoa eta Haren Erreinua banaezinak dira. Horregatik, kristauaren otoitza eskabide honetan laburbiltzen da: “Etor bedi zure Erreinua”.

• Jainkoaren Erreinuaren bila

33. Kristauak otoitz egiten duenean, azken errealitate bezala Jainkoaren Erreinua gizakien artean gauzatzea bilatzen du. “Zeruko zuen Aitak badaki, horiek guztiak behar dituzuela. Bila ezazue, beraz, lehenengo Jainkoaren Erreinua eta Haren zuzentasuna; eta beste horiek gehigarri emango zaizkizue” (Mt 6,32-33). Guzti-guztiek bigarren mailan geratu behar dute, Jainkoaren Erreinua guregan eta mundu osoan onartzearen ondoan. Horregatik, geure buruei galdetu behar diegu, zein Jainkori egiten diogun otoitz: injustizia eta giza saminak inporta ez zaizkion Jainko ganorabako bati, ala guztien ongia eta justizia nahi dituen Jainkoari? Norengan ari gara pentsatzen Jainkoa aipatzen dugunean? Nondik sortzen da eta norantz garamatza otoitzak? Geure egoismotik sortzen al zaigu eta egoismoan lehen baino itxiagoak uzten al gaitu? Jainkoaren Erreinua bilatzetik sortzen al da eta bera gauzatzeko konpromezuan lotzen al gaitu?

• Pobreen Jainkoari otoitz egitea

34. Jesusen Jainkoa onartzera garamatzanean, orduan da kristaua gure otoitza, eta ez dibinitatearekin orokorrean egiten den harreman hutsa denean. Baina Jesusen Jainkoa “pobreen Jainkoa” da, ezinduen babeslea, “galduta zegoena bilatu eta salbatzeko” (Lk 19,10) Jesusengan gizon egin dena. Edozein kontenplazio era ez da kristaua. Edozein Jainko-bilaketa ez da leial Kristorekin, azkenekoen Jainkoa bilatzen duen hura baizik. Kristau-otoitzean Jainkoa bedein-katzen da, bere Erreinua txikiei erakusten dielako (ikus Mt 11,25), Jainkoak Erreinuaz daukan borondatea betetzea bilatzen da, Erreinu hori hazten ari delako eskerrak ematen dira, berorren faltaz barkazioa eskatzen da. Otoitzera honen erdigunean pobreen Jainkoa dago beti. Otoitz horren barnean, Kristo pobreen artean bilatzeko deia entzuten da beti (ikus Mt 25,40).

Eguneroko bizitzatik

35. Fededunaren otoitza bizitzatik bertatik sortzen da. Otoitz horren edukia eguneroko bizitza bera da. Jainkoari hitz egiteko ez dago burutazio handien beharrik. Aski da Haren aurrera geure izatearekin agertzea. Gure bizitzari dago-kion guztia izan daiteke abiapuntu ona eskari-otoitza egiteko, esker onerako, gorespenerako, kexua azaldu edota barkazioa eskatzeko².

² Ikus *Catecismo de la Iglesia Católica*, 2626-2643. zenb.

- ***Beharretik elkartasunera***

36. Premian sentitzen denean, gizakiak oiuhu egiten du, eta oiuhu hori dei bihurtzen da. Ez dugu aski geure buruarekin, eta erantzun diezagukeen norbaiten laguntza bilatzen dugu. Baina gizakiak ez du arazoentzako konponbidea bakarrik behar. Bere izatearen hondoenean eta behar horien atzean, ezerk eta inork bete ezin dezakeen hustasuna dago. Gizakiak salbazioa behar du. Orduan, giza garrasia Jainkoari egiten zaion otoitz bihurtzen da: “Barnenetik Zuri dagizu oiuhu, Jauna, entzun, Jauna, nire mintzoa” (Sal 130 [129], 1).

Sinestedunak ez du otoitz hori bere beharrak errazago asetzeko tresna magiko bihurtzen. Bere otoitza Jainkoarengan, azken Salbatzailearengan, daukan uste osoaren azalpen da. “Nire indar eta nire kemen Jauna, Hura gertatu da nire salbamera” (Sal 118 [117], 14). Pixkanaka, bere otoitza konfiantza eta Jainkoarekiko elkartasun egiten zaio. Beraren eskariak ez dira zuzentzen beharrezko dituen gauzetara, beti ondoan daukan Jainko horrengana baizik. Jainkoarengana doakio bihotza, Hura den bezalakoa delako, eta, bere beharren artean ere, Haren presentzia isila eta adiskidetsua bilatzen du. Behar duguna eskatzen digogu Jainkoari, baina gure otoitzak Jainkoari “berea egiten uzten dio” uste onez, Haren eskuetan baitago gure salbamera.

- ***Bizi-pozetik gorespenera***

37. Bizitza ez da beharra bakarrik. Poza ere bada, atsedena eta gozamera. Bizipozaren sentipen adierazgaitz hori ez da bere baitan itxita gelditzen. Gizakiak norbaiti esan eta eskertu beharra dauka bere poza. Baina, norantz edo norengana zuzendu behar du bere esker ona, badelako eta bizi delako? Bihotz fededunari esker on ikusgarria dario, ez biziarekiko esker ona orokorrean, Jainkoarekiko esker ona baizik, on guztien iturri eta sorburu denarekiko esker ona. “Zu zara nire Jainko, eskerrak ematen dizkizut” (Sal 118 [117], 28). Ez da, dohain jakin batzuegatik eskerrak ematea bakarrik. Sinestedunak ikusten du dena grazia dela, dena emana izan zaiola. Jainkoarekiko gorespenera dario bihotzetik, Haren handitasunaren eta ontasun salbatzailearen aitortzea. “Bai handia zarelara, ene Jainko!” (Sal 104 [103], 1). “Goretsiko dut Jauna bizi naizeino” (Sal 146 [145], 2).

- ***Sufrimenetik konfiantzara***

38. Sarritan bizitza samina eta sufrimendua da. Gizakia gaitzak joa sentitzen da, ezbeharrak edo injustiziak joa. Gure zorion-gogoa mila zatitan puskatzen du oinazeak. Orduan gure barrutik kexua sortzen zaigu; zergatik niri?, zergatik orain?, zergatik horrenbeste? Sinesteduna Jainkoari kexatzen zaio: “Jauna, zergatik zaude urrutian?, zergatik ezkututzen zara larrialdian?” (Sal 10 [9B], 1). “Noiz arte izan behar ditut nik nahigabeak egun oro nire bihotzean?” (Sal 13 [12], 3). Bere kexua, maitasun hutsa den Horrengana zuzentzen badu ere, fededunak ikusten du ez dela Jainkoa gaitz hura bidaltzen duena edo gure mina nahi duena. Saihestu ezinezko sufrimenduak izanik ere eta sufrimenduen bidez, Jainkoak gure ongia nahi du beti; sufrimenduetan eta haien bidez, ondasun garrantzikoago eta baliotsuenak lortzeko aukera eskaintzen digu. Eta orduan kexua konfiantza bihurtzen da: “Hurbil zauzkat, Jauna” (Sal 119 [118], 151). “Nigizagaixo eta behartsu naiz, baina Jauna da nitaz arduratzen” (Sal 40 [39], 18).

- ***Errudun izatetik barkazioa jasotzera***

39. Gizakia errudun sentitzen da sarritan. Alferrik da hori ahaztea. Kulpabilitatea ere bada bizitza, barne-kontrajartzea, bere buruarekin gustura ez sentitzea, beldurra eta duintasun eza, salaketa, beste era batera izan nahia. Pertsonak orduan ihes egin dezake bere buruagandik, edota bere izatearen nahirik sakonena entzun, eta barkazioa eta adiskidetzea bila dezake. Horixe egiten du fededunak Jainkoaren errukia eskatzen duenean: “Suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz” (Sal 51 [50], 3). Ez da bekatu jakin batengatik barkamena eskatzea bakarrik. Pertsonak badaki, Jainkoaren barkaziotik bizi behar duela atergabe. Jainkoaren errukian oinarritze hau ez da beregandik eta bere erantzukizunetik ihes egiteko era gordea, baizik eta bere buruarekin era argitsuan aurrez aurre jartzeko modurik onena. “Zure maitasunak nauka, Jauna, zutik” (Sal 94 [93], 18). “Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu niregan” (Sal 51 [50], 12).

- ***Muga-kontzientziatik gurtzara***

40. Gizakiak askotan sumatzen ditu bere sendotasun eza eta bere mugak. Bizitzan beti presente dagoen heriotzak gure hilkortasuna gogorarazten digu atergabe. Norbanakoa bizi daiteke distraitu, bere kontzientzia betez inpresio, ekin-tza edo informazioz. Baina ez du lortzen bere giza izatearen galdera sakonena erabat isiltzerik: nor naiz ni?, zer nintzen ni jaio aurretik?, zer daukat zain? Orduan eror daiteke nihilismoaren desesperazioan edo pragmatismoaren etsipenean. Sinestedunak, bere erro-erroko mugatik, barrua irekitzen dio uste onez Jainkoaren misterioari. Bere bihotza Jainko santuaren aurrean ahuspezten du, ez beregandik kanpoan daukan indar baten aurrean, bere izatea sendotzen dion Sortzailearen aurrean baizik. Jainkoa gurtzean eutsia sentitzen da, bera gabe ezer izango ez litzatekeen Hark eutsia. Honako hau esateaz batera: “Bazara Zu, Jainko, betidanik betidaino” (Sal 90 [89], 2), bere bihotzetik konfiantza sortzen zaio: “Jauna da nire biziaren eusle” (Sal 54 [53], 6).

III.- OTOITZA ERABERRITU BEHARRA

41. Errezatzen ikasteko ez da aski kristauaren otoitza zer den esatea. Garbitu ere egin behar ditugu otoitzari itsatsi zaizkion akatsak, eta Jainkoarenganako bidea beste era batera aurkitu, kritikei eta gaur egun Berarengana egiaz jo nahi duenak dituzkeen oztopoei erantzunez.

Otoitzaren eraginkortasuna

42. Zertarako balio du errezatzeak? Hona hemen gaurko gizakiak lehenbizi egin ohi duen galdera. Bizitza erosoago egiteko baliagarri al da? Balio al du arazoeti irtenbidea emateko? Begira dezagun arretaz eta saia gaitezen otoitzaren eraginkortasuna zertan dagoen ulertzen.

• Otoitzaren ondorioak

43. Zenbaitek eskaintzen ditu Espiritu Santuari edota Ama Birjinari egindako eskari burugabe batzuk, hainbeste aldiz esan nahiz prentsan argitaratuz gero, besterik gabe era guztietako ondasunak ekar ditzaketelakoan. Ez da hori, inola ere, egiazko otoitza. Bada, ordea, modu zoliagorik otoitza Jainkoarekin “negoziatze” bihurtzeko, mesederen bat eskuratu edota otoitz horretan oreka emozional nahiz psikikoa segurtatzeko.

Otoitza ez da arazoak konpontzeko edota gaitzak sendatzeko baliabidea. Otoitza ez da “eraginkor edo baliozko” guk nahi duguna lortzen duelako, baizik eta gizatiarrago eta kristauago egiten gaituelako. Jainkoarekin elkartzeak ireki egiten digu bihotza, beraren Hitza zinez entzuteko. Berari begira jartzen gaitu. Geurekoikeria neurrigabeak gauzak pilatzera eta lagun hurkoa geure menpe hartzera garamatzen bezala, otoitzak askatu egiten gaitu geurekoikeria horretatik. Egia nagusi dugula bizitzen laguntzen digu, jarrera argi eta ernea izanez, ingurugiroa askotan ergel eta axalekoa izanagatik ere. Azken itxaropena kontuan izanez bizitzen laguntzen digu otoitzak. Gure bihozberritzean nabaritzen da, batez ere, otoitzaren eraginkortasuna.

• Eskari-otoitzaren esanahia

44. Ongi ulertu behar dugu, beraz, zer den eskari-otoitza. Salbamenaren beharrean gaudela eta uste on osoa Jainkoarengan dugula adierazten dute gure eskariak. Jainkoari ez diogu errezatzen gu maiteago izan gaitzan edota gutaz nahiz guk aipatzen dizkiogun pertsonen arreta handiagoz ardura dadin. Ezin gaitu Jainkoak gaituena baino maiteago izan. Jainkoaren graziak eta Hark gu salbatu nahiak alda gaitzan egiten dugu otoitz. Jainkoak ez, baizik eta guk dugu aldatu beharra. Horregatik, ez diogu gure saiatu beharra ordezkatzeko duen laguntza eskatzen. Ez diogu gure arazoak gure ordezkari Berak atera ditzala eskatzen. Beraren grazia, ontasuna eta egia kontuan izanik bizitzen eta jarduten jakitea eskatzen diogu. Egiazko otoizlariak era askotara sumatu ohi du Jainkoaren hurbiltasun maitetsua, baita arazoak berak uste bezala ateratzen ez zaizkionean ere. San Agustinek egin zuen ohar burutsu hau: “Entzungo du Jainkoak zure deia, Bera-

ren bila bazabiltza. Ez du entzungo, Beraren bidez beste zerbaiten bila bazabiltza”.

- ***Probidentzian uste ona***

45. Ongi ulertu behar dugu, beraz, Probidentzian uste ona izatea zer den. Sinesten du kristauak Jainkoaren maitasuna arduratsua dela. Aitak ez ditu alde batera uzten Berak sortu dituenak, ez du galtzen beraiekiko ardura; alderantziz, bizitzen iraunarazten die maitasun leial, erne eta sortzaileaz. Ez gaude halabehararen edota patuaren menpe, gure ongia nahi eta bilatzen duen Aitaren maitasunak eutsirik baizik. Hona nolako aholkua ematen digun san Pedrok: “Utzi Jainkoari zeuen kezka guztiak, Bera baita zuetaz arduratzen” (1 Pe 5,7). Hala ere, honek ez du esan nahi Jainkoa gure bizitzan “sartzen” denik beste pertsona nahiz faktore batzuk sartzen diren bezala. Jainkoa ez da beste bat gehiago. Sortzailea da; Berarengandik datorkigu izatea, baita gure bizitza ongira zuzentzeko grazia ere. Horrela jardunez, Jainkoa ez da gure bizitza nahastera sartzen, gertaerak bultzatuz edota gure askatasuna deuseztatuz; Jainkoak begirune die gure erabakiei eta munduaren joanari. Gainera, esperientzia zehatzen batzuetan Jainkoaren maitasun arduratsuaren zantzuak ikusi ahal baditzaiegu ere, Jainkoaren ekintza ezin asmatuzkoa da. Guk ezin dugu bizitzearen osotasuna ikusi; ez dugu sumatzen gauzen azken jomuga; ezin ditugu gertakaririk txikienaren azken ondorioak begiztatu. Jainko maitetsuaren esku gelditzen da dena, eta Berak ez du bere sorkarietarik bat ere ahazten. Bera da biziaren jabea, Unibertsoaren eta beronen legeen nagusia. “Harengan dugu bizitze, ibiltze eta izate” (Ap Eg 17,28). Guretzat ezin asmatuzkoa izanik ere, Jainkoak beti aurkitzen du bere seme-alaben eskariei erantzuteko bidea, guztia bakoitzaren on zehatz eta egiazkora bideratzeko.

Otoitza eta bizitza

46. Ez dirudi erraza denik otoitza eta bizitza batera eramatea. Bizitzaz eta otoitzaz ulermen okerra dugulako izan daiteke. Bizitza gauza asko egiten jardutea dela iruditzen zaigu; otoitza, aldiz, bizitzatik erretiratzea, lagun hurkoaren arazoak eta beraren egoera ahazturik. Ez da hori horrela.

- ***Otoitzak ekintzara garamatza***

47. Esan dezagun, hasteko, otoitz egitea ez dela beste betekizun bat, ezta gure bizitzako gainerako uneetan eman ezin diogun aintza Jainkoari emateko beta hartzea ere. Kristau-bizitzaren azalpen eta iturri da otoitza. Bizitzatik sortzen da eta bizitzara garamatza. Ez da egoki bizitza eta otoitza kontrajartzea, otoitzak bizitzarekin zerikusirik ez baleuka bezala. Alderantziz, gure bizitzako unerik indartsuenetako bat da otoitza, gure ekintzaren gailurretako bat. Izan ere, otoitzak arnasa ematen dio eta indarra gure bizitzeari. Jainkoarekin egiaz elkartzeak “beharrezko den gauza bakarrera begira” jartzen du gure bizitza, geurekoikeriatik eta gauzen lilura itsugarritik libratuz. Aldi berean, beste era bateko indarrak pizten ditu gure baitan, dena mugatua besterik ez balitz nekez piztuko litzaizkigukeen indarrak. Bestalde, giza sufrimendu eta larrialdien sustrai sakona zein den ikusarazten digu otoitzak, eta ez digu edozein konponketarekin edota ihes eginez konformatzen uzten. Aitaren maitasuna onartzean, senideak onartzeko,

maitatzeko eta zerbitzatzeko oinarrikeria ederrena aurkitzen dugu. Orduan uler-
tzen dugu san Pauloren aholkua: bizi zaitezte “itxaropenean pozik; ezbeharrean
izan eraman handiko, otoitzean lehiatsu, kristauen beharretan laguntzaile, arro-
tzei ostatu eman zale” (Erm 12,12-13).

- ***Otoitz ororen froga***

48. Jainkoarekin egiaz harremanetan dagoena ez da inoiz “ni” bakartia izango.
Ezin da Jainko Aitarekin harremanetan egon, giza senitarte egiteko arrazoia,
indarra eta oinarria Berarengana aurkitu gabe. Bakarkeriak, besteen axolarik
ezak, norgehiagoka bizitzeak, gizon-emakumeen nahigabeen aurrean ardura-
gabe gelditzeak, ezinezkoa egiten du benetako otoitza. Horregatik, maitatzen
jakitea da otoitzaren froga. Gehiago maitatzera eragiten digun otoitza da otoitzik
ederrena. Maitasuna denarekin elkartzeak maitasun-bizitza pizten du. Otoitz
asko eginik ere, “maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna
baita” (1 Jn 4,8). Bizitza osoa du otoitzak maitasuna azaltzeko eremu. Ezin da
tarteka edo aldizka maitatu. Otoitzean bezala maitatzen da bizitzan ere.

Norekin mintzatzen gara otoitzean?

49. Psikoanalisi izan baino askoz lehenago ohartarazia zuten espiritu-
bizitzako maisuek nolako amarruz engaina dezakeen bere burua otoitz egiten
duenak. Jainkoari otoitz egiaz egin nahi badiogu, honako galdera hau egin behar
diogu geure buruari: benetan, zertan ari naiz errezatzen dudanean?, norekin ari
naiz mintzatzen otoitzean, Jainkoarekin mintzo naizela uste dudanean?

- ***Ezin dugu nahasi Jainkoa geure sentimenduekin***

50. Izan ere, otoitzean Jainkoarengana zuzentzean, Jainko hori norbere bu-
ruaren luzapen nartzisista izan daiteke, geuk geure ilusioak suspertzeko sortu
dugun amets hutsa, geure burua engainatzeko asmatu dugun zerbait, gure
erruaren zama arintzen duen aitzakia, eta beste gauza asko. Horregatik dugu
otoitzari garbitu bat eman beharra, Jainkoaren egiazko aurpegia aurkitu ahal
izateko.

Jainkoa ezin dugu edozein gauzarekin nahasi. Edozein egiaztatze eta bere-
halako esperientziatik harantzago dago beti Jainkoa. Ez gara inoiz zuzenean jar-
tzen Berarekin harremanean; bitartekoak behar ditugu. Ezin dugu nahasi gizon-
emakumeok sortutako irudi, sinbolo, ohikune edo erritoekin. Ezin dugu geure
sentimendu eta esperientziekin identifikatu ere. Jainkoa ez da geure baitan
suma dezakegun bakea edota bozkarioa. Jainkoa “beti handiagoa da”, haran-
tzago dago. Beti “itsumustuka” goaz Berarenganantz, Hitzak argiturik eta Jesu
Kristori jarraituz, Bera baita “Aitarengana daraman bidea” (ikus Jn 14,6). Ezin
gara geure gustuko eta geure onurarako Jainkoa “egiteko” tranpan erori.

- ***Jainkoak ez du uzten erabil dezagun***

51. Apalki ibili behar da Jainkoaren bila, gurekin elkartzeko ekimena Berarena
baita beti ere otoitzean. Elkarketa hori izateko alde batera utzi behar da
garrantzitsuenak gu geu izan nahia, geure nahiera eta beharrak aurrera atera
nahia. Jainkoak ez du uzten gu Berataz jabetu gaitezen eta geure gogora erabil

Jainkoak ez du uzten gu Berataz jabetu gaitezen eta geure gogora erabil dezagun. Jainkoa gure eskura dagoela, bizitzako une eta gorabehera latzetan babesten gaituen “aseguru” eskurakoa dela uste izatea, oker egotea da. Jainkoa ez baita horrelakoa. Jainkoa agerikoa eta bistakoa dela uste izatea, gure sentimenduekin nahas daitekeela eta gure beharretara makur dezakegula uste izatea, irudipen hutsa da. Hona zein den egiazko otoizlariaren jarrera: “Zure aurpegi bila nabilkizu, Jauna. Ez niri ezkuta aurpegi hori” (Sal 27 [26], 8-9). “Gogoa irrika daukat, Jainko, Zugana. Nire gogoa Jainko biziaz egarri da” (Sal 42 [41], 2-3).

- ***Norantz garamatza otoitzak?***

52. Psikologiaren ikuspegitik begiraturik, otoitza arriskutsua dela dirudi: Zertan ari da ikusten ez duenari hizketan ari zaiona, entzuten duen ala ez, baden ere ez dakigunari mintzatzen zaiona? Zein alde dago otoitz egitearen eta ametsetan ari izatearen artean? Otoitz-esperientziak norantz garamatzen jakitea da erabakigarria. Bere irudipenetan gelditzen dena errealitatetik aparte bizi da, ez dio aurre egiten; bere neurriko errealitatea asmatzen du, egiazkoa gogoko ez duelako. Egiazko otoitzak, aldiz, bizitzari bere gordintasun osoan aurre egitera garamatza eta, batik bat, errealitatea eraldatzen saiatzera. Ebanjelioan ageri zaigun Jainkoari otoitz egiteak Ebanjelioaren arabera bizitzera garamatza, gurutzea ere onartzeraino.

Horrelako otoitzak ez du Jainkoarekiko esperientzia aita nahiz amaren irudipean bizitzeko kezkarik izan behar. Ez du sentimenduak eta bihozkadak utzi beharrik, “psikoanaliaren aldetik baliozkoa” izateko. Maite duelako, otoizlariak goretzi egiten du Jainkoa; Berarengandik mesedeak hartzen dituelako, eskerrak ematen dizkio; sufritzen duelako, kexatu egiten da; bekatu egiten duelako, barkamena eskatzen du; sinetsi nahi duelako, Jainkoaren aurpegi bila dabil.

Jainkoa bera aurkitu otoitzean

53. Ezin zaigu ahaztu otoitza Jainkoari “bai” esatea dela. Eta ez da erraza. Jainkoari “baietz” hori emateko zailtasuna ezin da zuritu konfiantzazko esaldiak eginez. Jainkoari baietza emateak otoitzean Jainkoa bera aurkitzea eskatzen du, Jainko bizia aurkitzea.

- ***Jainkoaren aurrean jarri***

54. Egiazko otoitz oro “hona hemen ni, Jauna” esanez hasten da. “Jainkoaren aurrean jartzea” esan ohi zioten horri espiritu-bizitzarako maisuek. “Beste ikuspegi” batean jarri beharra dago; onura eta interesen mundua utzi eta Jainko deitzen diogun Misterioaren aurrean jartzeko prest egon. Jarrera askok eragotzi diezaguke Jainkoarekin elkarketa izatea, baina batek ere ez Jainkoaz jabetu nahiak eta geure buruari begira egoteak bezainbat. Jainkoarekiko harremanen ardatza norbera denean, halakoarentzat dena gauza bihurtzen da, dena bere onurara makurrarazten du. Nola egin elkarketa Jainkoarekin jarrera hori izanez? Jainkoarekin harremanetan jartzeko, prest eta bihotz zabal egon beharra du pertsonak. Askotan, eskariaren eskariz, behar eta interesez bete ohi dugu otoitza, eta Jainkoari ez diogu gure bizitzan sartzen uzten. Geure hitzak eta zaratak

baizik ez ditugu entzuten; ez dugu Jainkoaren ahots isila aditzen. Otoitz egiteko geure baitatik atera behar dugu eta Jainkoaren maitasunera irekiak egon.

- ***Egiazaletasunez***

55. Bihotz garbia, egiazaletasuna, gardentasuna eskatzen du otoitzak. Norbera faltsuki badabil, ezin da egiazko harremana izan Jainkoarekin. Eta are gutxiago Jainkoari buruz dugun irudia ere faltsua baldin bada. Otoitz barnean sartzeko, alde batera utzi behar ditugu itxurakeriak. Joan ote gaitezke mozorroturik Jainkoaren bila? Alferrik da Beraren aurrean geure zauri eta akatsak gordetzen ibiltzea. Ez dugu geure bekatuen aitzaki bila edota epelkeria zuritzen ibili beharrik. “Berak ezagutzen du gure buztin-orea, gogoan dauka lur-hauts garela” (Sal 103 [102], 14). Hori jakinik, Berarengana jo dezakegu: “Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta Zuk ezagutzen” (Sal 139 [138], 1).

- ***Jainkoaren bila***

56. Metodo, liburu, otoitz eta formulak gaindituz Jainkoaren bila ibiltzea eskatzen du egiazaletasun horrek. Nork bere lasaitasun eta kontsolamendu bila ibili baino lehenago, Jainkoaren bila ibiltzea ere eskatzen du. Gauzen bila ez, baizik eta Jainkoaren bila ibiltzea. Egiazaletasun horrek berak geure baitan Jainkoari “bai” esatera garamatzake. “Baietz” apala, txikia, gure bizitza ustez ezertan aldatzen ez duen baietza, baina Jainkoaren esanera jartzera bultzatzen gaituena: “Adieraz iezadazu hartu behar dudan bidea, Zugana baitut jaso a bihotza” (Sal 143 [142], 8).

Otoitza, sinesgabeziak jotako garai hauetan

57. Otoitzaz mintzatu ez ezik, otoitza egin behar da. Jainkoa inoiz baino gordeago dagoela dirudien garai hauetan, konbentziturik eta Jainkoaren bila ibiltzeko gogo biziz egin behar da otoitz. Hain zuzen ere, otoitzean handitu eta sendo daiteke gure sinesmena, geure ikara, zalantza eta segurtasunik ezaz Jainkoarekin mintzatuz.

- ***Jainkoa ezkutatzean***

58. Badirudi gaur egungo sekularizazio eta axolagabekeri giroak ez duela Jainkoa gurekin dagoela ikusten uzten. Gaur egun sinestedunak erronka kezkarri eta astintzaile hau du aurrean: “Non duk hire Jainko hori?” (Sal 42 [41], 4). Badirudi erlijio-gaiek gizartean oihartzunik ez izateak ahuldu egiten duela sinesmenaren indarra zenbaitengan. Gizartean dugun sinesgabezi giroak ukitu edo baldintzatu egiten du zenbaiten sinesteko era, Jainkoarekiko duten atxikimendua astinduz eta Jainkoa beren bizitzetan izatea estimatzeko gogoia itzaliz.

Nola egin otoitz, “Jainkoa arrunt isilik dagoela” dirudienean? Hala ere, isiltasun hori Beraren bila gogo eta egiazaletasun handiagoz ibiltzeko deia dela uler daiteke. “Non zara, Maite, ostendu (ezkutatu)?”, egiten du oi hu sinestedunak. Jainkoari buruzko irudi okerrak aztertu behar ditugu; baztertu egin behar ditugu Jainkoa nolakoa den ulertzeko, adierazteko eta Bera menperatzeko gure asmo okerrak. Iraupena behar dugu otoitzean, Jainkoaren hutsunea, Jainkoa

gure artean ez ikustea, sofrituz eta sinesmen biluzia piztuz: “Ondo dakit ondo, bai, nik non dagoen / iturri beti dena jarioan, / nahiz eta izan gaua” (Gurutzeko san Joan).

- ***Gure garairako otoitza***

59. Gizartean Jainkoaren zantzurik ez ikustekak otoitz zailduagoa sortaraz dezake guregan. Hitzak axalez esanez edota formulak mekanikoki errepikatuz errezatzea zailago gertatzen da gaur egun. Zail da otoitza betebehartzat onartzea. Errazago da, “ni ez naiz gainerakoak bezalakoa” pentsatuz errezatu ohi zutenaren gustu itxurazkoa eta bere buruari atsegin ematea suntsitzea. Itxaropena, pazientzia eta Jainkoarekiko gogoa oinarri harturik otoitz egiten ikasteko ordua da. Geure buruaz ahazteak eta segurtasun faltsuak uzteak egin diezagukete tarte bat Jainkoaren salbamena gure artean agertzeko.

- ***Sinesgabeekin senidekiro elkaturik***

60. Kristaua bere otoitzean ezin da besteez arduratu gabe gelditu. Ezta zabal-tzen ari den sinesgabeziaren ondorioz sinesten asmatzen ez dutenez ere. Jainkoa bera da sinesgabeko senideei kanpotik eta urrutitik bezala begiratzen uzten ez diona. Gainera, ezin da garbi erabaki non dagoen sinestedun eta sinesgabekoen arteko muga. Sinesteduna bihur daiteke sinesgabe, eta alderantziz. Inor ez da Jainkoaren jabe; Jainkoaren aurrean ezin du inork pentsatu bestea baino gorago dagoenik. Lisieux-eko santa Teresak ematen digu sinesgabeekiko senide-elkartasunaren ikasbide bizia. Bere “gau beltzean” sinesmena “sinetsi nahi dut” apala esateraino murriztu zitzaionean, sinesten asmatzen ez zutenak ulertu egin zituen Teresak, eta naturaltasun osoz “senide, haurride” deitzen die, denen izenean mintzatzen zaio Jainkoari, “pluralean”, haien izenean otoitz egiten du, honako hitz hauek esanez: “Zure alaba honek, Jauna, ikusi du zure jainko-argia eta barkamena eskatzen dizu bere senideentzat... Ezin esango ote du, bada, halakoen izenean, bere senide bekatarien izenean: urrikal zakizkigu, Jauna, bekatari baikara...?”. Sinesmena proban jarri zaionean, sinesgabeen senide ikusten du Teresak bere burua. Bat egiten du halakoekin. Halakoen gupidaz, halakoengana hurbilduz, halakoen alde egiten du otoitz.

Gaurko esperientziatik abiaturik egin otoitz

61. Ez dirudi gaurko bizierak otoitz egiteko giro egokirik eskaintzen duenik. Hala ere, gure artean da Jainkoa gaur egun ere. Beti bezala, gaur egun ere elkar gaitzke Berarekin. Bi galdera egin behar ditugu: Nola goretsi Jainkoa zientziak eta teknikak Beraren zantzuak ezabatzen ari dituztela dirudienean? Nola egin otoitz gaurko bizitza zalapartatsu eta sakabanatu honetan, Jainkoaren zuzmura entzuteko behar den isiltasuna ezinezkoa delarik?

- ***Gaurko mundu honetan egin otoitz***

62. Natura, Kreatzailearen egintza delarik, beti izan da sinestedunarentzat Jainkoa gurekin dagoenaren zantzu, zuzmur eta isla. Beti goretsi izan du Jainkoa naturagatik: “Jauna, gure Jauna, bai harrigarria zure izena mundu osoan!” (Sal 8,2). San Buenaventurak hau esan ohi zion sinestedunari: “Saia zaitetz biho-

tzez gauza guztietan zeure Jainkoa ikusi, entzun, goretsi, maitatu eta gurtzen, goraldtu eta ohoratzen”.

Gaur egungo zientzia eta teknikaren ondorioz, beste era batera ikusten dugu natura; hala ere, horrek ez digu Kreatzailea gorestea oztopatu behar; sakondu eta aberasten lagundu behar digu baizik. Izan ere, lagundu egin digu zientziak natura zeinen handi eta, aldi berean, zeinen txiki den ohartzen, nahiz eta gure sentimenez ezin duten besterik gabe ikusi. Gaur egun harridura handiagoz begiratzen diogu Unibertsoaren ordena eta harmonia misterioitsuari. Teknika ere, bere aldetik, Jainkoaren irudira egina den gizakiaren ahalbideak izugarri handitzen ari da. Munduaren sekretuak nolakoak diren zenbat eta hobeki jakin eta ahalbideak erabiltzeko gaitasun handiagoa izan, hainbat eta erlijiozaleago izan behar genuke, Jainkoaren jakinduria eta ontasuna gehiago miretsi, esker on handiagoa izan, guregan halako konfiantza izan duelako eta guretzat hain eskuzabal izan delako.

Hala ere, ikasi beharra dago Jainkoa goستن. Gaintitu beharra dago natura era instrumental eta zientifikoan baizik ez ikustea, bidaltzen dizkigun mezu sakonak entzun ahal izateko. Garbitu beharra dugu begia, datu soil eta onura huts dena baino harantzago ikusi ahal izateko. Ireki beharra dugu begia, lur hau erregalu dugula berriz ere ikusteko, esker onez hartu eta denen artean banatu beharreko erregalua dugula ohartzeko: “Itsasoa bere du, Berak egin baitu; bai lehorra ere, Haren eskuek baitute antolatu” (Sal 95 [94], 5); ez ditu inork berekoikeriaz bere probetxurako erabili behar. Gaurko fededunak ere kanta dezake bihotzetik: “Lur osoa, egiozu txalo Jaunari” (Sal 98 [97], 4). “Arnasa duen guztiz Jauna beza goretsi” (Sal 150,6).

- ***Gaur egungo hiri modernoan egin otoitz***

63. Gaur egungo zaratak, komunikabideen presioak, ibili beharrak, norgehiagoka bizi beharrak, publizitateak, hori guztia etxeraino sartzeak, presaka eta larri ibili beharrak, ezinezkoa egiten dute otoitzerako behar den baretasuna. Ez da harritzekoa batek baino gehiagok hiritik alde egitea otoitzerako, “bazter barkartiren baten” bila (ikus Mk 1,35). Aterabidea, ordea, ez dago aldi behin halako irteerak egitean. Gizon-emakumeak dauden tokian dago Jainkoa, baita hirien erdian ere. Gainera, “beti egin behar da otoitz, etsi gabe” (Lk 18,1).

Gaurko gizakia handia da eta, era berean, hala-halako; askatasun-gogoa du, baina bekatuaz kutsatua dago. Hala ageri da gaur egungo bizitzan. Bekatuaren eta graziaren arteko borroka horrexetan ikus daitezke Jainkoa gure artean izatearen zantzuak, eta nola ari den gizon-emakumeak on izatera, zuzen eta sende izatera erakartzen. Horra hor behartsuak, baztertuak, ezinduak, zahartuak, bakardadean daudenak, noraezean dabilzan gazteak, atsekabez, itxaropenik gabe dabilzanak. Halakoengan Kristoren aurpegia ikusi beharra dugu.

Egokiera zaindu eta segurtatu beharra dago, hirian otoitz egin ahal izateko. Geroxeago mintzatuko gara honetaz. Gaur egungo bizitza honek gure otoitza sortarazi dezakeela gogoratu nahi dugu orain. Sofritzen ari direnen alde egin dezakegu otoitz, bidean gurutzatzen zaizkigunak ezezagunak izanik ere. Jainkoa goretsiz eta Berari eskerrak eman egin dezakegu otoitz, bizitza duin egiteak eta behartsuenei zerbitzu egiteak esan nahi duen guztiagatik. Barkamena eska-

tuz egin dezakegu otoitz. Denentzat bizitza zuzenagoa eta gizatiarragoa egiteko Konpromezua hartzera bultzatzen gaitu otoitzak.

Mundu zuzengabeen egin otoitz

64. Gizadiaren lorpen harrigarriak nolabait lausotuak gelditzen dira, zuzengabekeria larriak egiten direlako. Batzuk eroso-eroso bizi dira, alferrikako gastuak ere eginez; beste asko, aldiz, pobrezian, miserian eta goseak bizi da. Nolaz jo Jainkoarengana mundu zuzengabe honetatik?

• *Behartsuen alde eta behartsuekin otoitz egin*

65. Ezin diogu otoitz egin Aitari sofritzen ari direnei bizkarra emanaz. Behartsuen alde ez ezik, behartsuekin otoitz egiten ere ikasi beharra daukagu. Sofritzen ari direnengandik, senak eraginik bezala, ihes egiteko joera menperatzen lagundu behar digu otoitzak. Astinarazi egin behar digu lagun hurkoaren samnaren aurrean izan dezakegun geldikeria eta axolagabekeria. Hurbildu egin behar gaitu saminduengana. Galdetu egin behar diogu geure buruari, norberaren otoitzean nahiz elkarteko otoitzean “behartsuen Aitarekin” elkartzen garen ala otoitz hori gure erantzukizunak duen arriskutik ihes egiteko aitzakia huts dugun. Otoitz egiten diogun Jainkoak “ez du betiko ahazturik utziko behartsua” (Sal 9,19).

• *Zuzentasunak argitutako otoitza*

66. Ez dugu inoiz ere gehiegitan gogoratuko san Joanen oharra: “Ikusten ez dugun Jainkoa maite dugula esan bai, baina geure inguruan ditugun senideak maite ez baditugu, gezurtiak gara” (ikus 1 Jn 3,11-18; 4,11-21). Geure bekatu eta konplizitateaz ohartzeko lagundu behar digu otoitzak. Indarra eman behar digu zuzengabekeria tarteko ez izateko. Hobeki esan, mundua zuzenago egiteko urratsak, txikiak badira ere, egin beharraz ohartarazi eta egitera konprometitu behar gaitu otoitzak. Esperientziarik atsegina beti ez izanagatik ere, justiziaren alde, era batera nahiz bestera, borroka egitea izan daiteke gaur egun gizakia maite dugula adierazteko zeinurik beharrezkoena. Horrela jokatuz izan dezake gure otoitzak beste era bateko argitasuna. Horixe da Isaiasen liburuan datorren agintzaria: zapalduak libratzen, uztarri oro apurtzen, aterperik ez duen behartsua etxean hartzen eta biluzia janzten saiatzeko bazara... “zuk hots egin, eta Jainkoak erantzungo dizu, zuk deiadar egin, eta Hark honela erantzungo: hemen naukazu!” (Is 58,9).

Adiskidetze beharrean dagoen gizartean egin otoitz

67. Gure gizarteak oso larri bizi du gaur egun adiskidetzeko urratsak egin beharra, indarkeria eta liskarrak nagusi zireneko garaiak alde batera utziz. Zer esan nahi du une hauetan bakearen alde otoitz egiteak?

Otoitza ez da, bakearen alde beste ezer eraginkorragorik egiten ez dakitenean edota ausartzen ez direnen ekintza. Ezta geure geldikeria edota ezer egin nahi eza gozatzeko lasaigarria ere. Ez diogu Jainkoari errezatzen, guk piztu di-

tugun liskarrak bare ditzan. Alderantziz, Jainkoak guretzat duen bake-asmoa guk onar dezagun egiten dugu otoitz, zein eragozpen eta oztopo jartzen diogun ohartu ahal izateko.

Otoitzean Jainkoarekin egiaz bat egiten badugu, ezin gara egonean gelditu; bakearen bila ibili eta bakea iristeko aspergabe lan egiten saiatu behar dugu. Nork bere bihotzean hasi behar du bakea egiten. Bihotzean pizten da gogorke-ria, bihotzetik ateratzen dira erresumina, erasokeria, fanatismoa, elkar eraman ezina. Otoitzak garbitu egiten du gure barne-jarrera eta adiskidetzeko presta-tzen gaitu. Sentiberago egiten gaitu edozein zuzengabekeriaren aurrean. Hur-bildu egiten gaitu biktimen sufrimendura. Askeago egiten gaitu egia defendat-zeko. Barkatzeko gauza egiten gaitu.

IV.- OTOITZA BERRESKURATU

68. Bada aspaldi honetan Jainkoarekin harremanik izan gabe bizi denik. Ez dakite nola egin. Txikitan ikasitako otoitzak ahaztu dituzte, eta orain ez dute Jainkoarekin beren erara hitz egiten asmatzen. Hala ere, behin baino gehiagotan sumatu dute, Jainkoari bere nahigabea edota beldurra azaltzeko gogo bizia, Jainkoari beren poza adierazteko edota eskerrak emateko nahia. Zer egin dezake, urtetan errezatu gabe egon ondoren berriz ere Jainkoarekin harremanetan jarri nahi duenak?

Jainkoarenganako gogoa piztu

69. Batzuek ez dute Jainkoaren inolako beharrik sumatzen. Aski dute beren burua. Ez dute inolako beste argi edota itxaropenen beharrik. Jarrera hori izanik, ezin da Jainkoaren bila abiatu. Otoitza berreskuratu ahal izateko, Jainkoarenganako gogoa piztu beharra dago.

- ***Gogoa sumatu***

70. “Gogoa irrika daukat, Jainko, Zugana. Nire gogoa Jainko biziarekin egarri da” (Sal 42 [41], 2-3). Otoitz egin ahal izateko lehen urratsa Jainkoarenganako gogoa izatea da. Batzuetan garbi sumatzen ez den gogoa, nolabaiteko beste esperientzien artean gordea dagoelako: barruko hustasuna, bizitze axalekoa, baliorik gabeko bizitza zalapartatsua eta antzeko esperientzien artean gordea dagoelako. Gogo ahula izango da, beharbada, edota bizia. Berdin dio. Gogo horixe bera otoitza da, hazi moduan bada ere. Hazi hori erretzen bada, pertsona hori otoitzean ari da dagoeneko. Hobeki esan, Espiritua ari da halakoarengan otoitzean.

Geure baitan dugun “Espirituaren oihua” arretaz entzutea da otoitz egitea. Isilarazi ordez, onartzea. Gogo hori, batzuetan, betiko hila dagoela irudituko zaigu. Beste batzuetan, aldiz, berriro ere sortu dela. Garrantzitsua da dei hori onartzea: “Horra, atean nago ate joka. Norbaitek nire mintzoa aditzen badu eta atea irekitzen badit, harengana sartuko naiz” (Apk 3,20). Atea irekitzeak hau esan nahi du: bizitzan bakardadean gabiltzanik uste ez izatea, baizik eta ondoan dugun Horri gurekin bidelagun etortzen uztea; norbera aski dela uste izan gabe, Jainkoarengana uste onez irekitzea.

- ***Bihotzaren garrantzia***

71. Biblian duen esanahia kontuan izanik, “bihotza” hartu izan da beti otoitza sortzen deneko toki. Pertsonaren barne-muina da bihotza, gure izatearen sustaia, gure askatasunaren egoitza. Ez da adimenaz, oroimenaz edota sentimenaz otoitz egiten. Bihotzez egiten dio otoitz pertsonak Jainkoari, eta Jainkoa “bihotzera hitz egingo diot” (Os 2,16). Bihotza esnarazi beharra dago otoitz egiteko, lo egon baitaiteke axalean bizi garelako, kanpokoak eraginik gabiltzalako, beti axaleko ekintzetan, asmoetan eta inpresioetan dihardugulako. Honela hasi behar gaitaizkio Jainkoari: “Ene Jainko, bihotz garbia sor ezazu niregan” (Sal 51 [50], 12). “Bihotz-bihotzez zaitut bilatzen” (Sal 119 [118], 10).

Jainkoa gurekin dela antzeman

72. Otoitza berreskuratzeko ez dago Jainkoari hitz asko egin beharrik. Aski da hitz batzuk behin eta berriz esatea, astiro eta fedez. Bera gurekin dela antzematea eta Berari entzutea da garrantzitsu eta erabakigarria.

• *Jainkoa gurekin dela antzeman*

73. Otoitzean Jainkoarengana irekitzeko, Bera gurekin dela antzeman behar da. Eta gurekin delako, aske nahi gaitu, Berarenganako konfiantza sortzen du guregan eta Berarekin bat egitera deitzen gaitu. Antzematea eta onartzea da garrantzitsua, ez arrazoitzea edo argibideak ematea. Gure izatearen sorburu eta helburu Jainkoa dela onartu behar da.

Norbait luzaro Jainkoarengandik urruti egon bada ere, halakoaren bizitzan Jainkoa ez dagoela iruditu arren, ager dakiok Jainkoa, era isil eta ahulean, baina egiaz. “Jainko” hitzak, ezezaguna edota esanahirik gabekoa egin delako, pertsonari ezer adierazten ez badio ere, Jainkoa sar daiteke gizakiaren bihotzean. Bizitzearen azken zentzua aurkitu nahia, izatearen misterioaz galdera egitea edota betiko bizia nahi izatea, otoitzaren haziak dira; halakoak berea egin dezake Charles Foucauld-ek zioen hura: “Baldin bazara, ezagut zaitzadala”.

• *Jainkoa onartu*

74. Jainkoa gurekin izatea ez da beste edozeinen egotea bezalakoa. Haren deia ezin da beste edozein dei bezala hartu. Gu geu baino arantzagotik datorkigun Norbaiti, gure nahierak gaintitzen eta gure planteamenduak baino handiago den Norbaiti, entzutea eskatzen du. Onartu nahiz mesprezatu egin dezakegu. Axolagabe geldí gaitzke edota Berarengana ireki.

Jainkoa onartzeak geure burua ezagutzera garamatza ezinbestean, geure handitasun eta txikitasunaz ohartzera, mugagabe izan nahi dugula baina mugatu garela ikustera. Geure barrua aurkitzera ere bagaramatza; hasieran ikaraz, gero neurrigabe maite gaituenarengan uste osoa jarritz. Oztopoak, setakeria eta beldurra baztertu behar ditugu Jainkoa onartzeko: “Zure bila dabilenik ez duzu, Jauna, eskutik uzten” (Sal 9,11).

Zenbait jarrera

75. Era askotara gauza bat esaten ari gara: Jainkoarengandik urruti ibiltzetik Beraren bila ibiltzera aldatu behar dugula, norbera aski dela uste izatetik Jainkoarekin bat egitera. Oinarrizko jarrera hauekin batera, beste batzuk ere beharrezko dira otoitza bizkortzeko.

• *Sakabanatua ibiltzetik barrura biltzera*

76. Otoitz egin nahi duenak bere barnera bildu behar du. Barruko arretaz izan ezik ezin da Jainkoarekin bat egin. Bere barnean arretaz ez dagoenarekin Jainkoa bera ere ezin da harremanetan jarri. Gauzek erakarri egiten gaituzte eta ekintzek etengabeko arreta eskatzen digute. Mila inpresioak erakarririk eta hain-

beste zereginetan barreiatu, gure “muina” zein den ikusi gabe eta Jainkoari gure aurrera agertzen utzi ezinik geldi gaitezke. Horrela ezin izango ditugu geure nahierak erabat ase, ezta geure azken galderei erantzun ere. Ez du deusek ere piztu ahal izango guregan behin betiko itxaropenik. San Agustinek sumatzen zuen hura ikusaraz diezaguke otoitzak: “Zeuretzat egin gaituzu, Jauna, eta ez du onik gure bihotzak Zuregan atseden hartzen ez duen arte”.

- ***Axalkeriatik zinezkotasunera***

77. Gutxitan dio pertsonak “ni”, Jainkoarekin mintzatzen denean bezain egiaz. Jainkoaren aurrean zinez naizen bezalakoa agertzea eskatzen du otoitzak. Horregatik, ezinbestekoa da besteen aurrean azaltzen dudana “pertsonaia” alde batera uztea. Eroso kokatua nagoen axalkeriatik askatu eta neure egian sakondu behar dut. Oinarritzak bilatu. Hona hemen Jainkoaren bila dabilenaren otoitza: “Bidal, Jauna, zeure argia eta zeure egia: hauek eraman nazatela” (Sal 43 [42], 3).

- ***Ihes egitetik prest egotera***

78. Egoera orotan eta edozein unetan egin daiteke otoitz. Hala ere, gure bizitzan nahasmena dugunean eta oso egiazkoa ez denean, alferrikakoak dira gure asmorik onenak. Bizitza nahasia daramagunean, Jainkoari ez diogu inolako ziriturik uzten gure bizitza horretan sartzeko; ez dugu baretasun-unerik Jainkoaren aurrean egoteko. Bizitza geldoa eta hutsala daramagunean, pertsonetik harremanik eta bizitzan gertatzen denaz interesik ez dugunean, edota bestetik arretarik ez dugunean, hor ezin da sortu eta, are gutxiago, hazi egiazko otoitza.

Nola zuzendu Jainkoarengana

79. Hitz batzuk zezeltzen noizbait hasiko ez balitz, haurrak ez luke inoiz hitz egiten ikasiko. Hala gertatzen da otoitzean ere. Errezatuz ikasten da errezatzen. Noizbait hasi beharra dago Jainkoarekin mintzatzen. Hasi beharra dago otoitz egiten.

- ***Jainkoari zuzendutako deia***

80. Egiaz otoitz egin nahi duenak une batzuk hartu behar ditu Jainkoaren aurrean bere baitara biltzeko eta bihotz-bihotzetik, bakarrean, norbere kontzientziaren intimitatean Berari dei egiteko. Hor irekitzen gara Jainkoaren misteriora. Apalki eta egiaz, nola egin jakin gabe ere, deitza da biderik egokiena Jainkoa sumatzeko.

Jainkoa gurekin dela antzemateaz gainera, beharrezkoa da Berarengana pertsonalki zuzentzea. Orduan, Jainkoa norbait izateaz gainera, konfiantza dei egiten diogun “Zu” hori dela ikusten dugu: “Jauna, Zugana jasotzen dut bihotza; ene Jainko, Zuga dut uste on” (Sal 25 [24], 1-2). Hasieran harrিতua eta ezeroso gerta daiteke bat, galdua baitzuen Jainkoari zuzenean hitz egiteko ohitura, eta orain ezin du asmatu Berarekin mintzatzen. Horrelakoetan, haurraren xalotasun eta konfiantzaz jokatu behar da. Beti betetzen da, nolerebait, Jesusek esana:

“Eskatzen duenak hartzen du, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaltzen zaio” (Mt 7,8).

- ***Lehen urratsak***

81. Nork bere bidea egin behar du. Buruz dakien eta estimatzen duen otoitza, “Gure Aita” edo “Agur, Maria”, esaldi bakoitza hausnartuz esateak lagunduko die batzuei. Astiro joan behar da, presarik gabe. Horrela izan ezik, ezin da otoitzaren esanahia hartu eta ahogozatu. Honek bai janaritzen duela gure barrua. Beste batzuei, bihotzean zirrararik handiena egiten dioten salmoetako esaldiak poliki-poliki hausnartuz errezatzeak lagunduko die. Berehala ohartuko dira, salmogilearen sentimendu berberak, beraien beldurrak, gogoak eta Jainkoaren bila ibiltzea azaltzen direla salmoetan ere.

Ebanjelioetatik hartutako esaldiak zuzenduko dizkiote beste batzuek Jainkoari: “Sinesten dut; baina sendotu Zuk nire sinesmena!” (Mk 9,24). “Jauna, Zuk dena dakizu, Zuk badakizu maite zaitudala” (Jn 21,17). “Jauna, Zuk nahi baduzu, garbi nazakezu” (Mt 8,2). “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi” (Lk 18,13). Berehala hasiko da pertsona hori Jainkoari bere barruko hitzez mintzatzeko: “Ene Jainko, behar zaitut”. “Eskerrak, Jauna, maite nauzulako”. “Zure indarrak eutsiko dit beti”. “Irakatsiezadazu bizitzen”. Hitz berberak errepikatzea komeni da. Horrela egin ohi zuen otoitz Jesusek; horrela egiten dute otoitz Jesusen ikasleek ere, bai hasi berriek bai aurreratuek.

Ilunaldian egin otoitz

82. Jainkoa beti da gu gainditzen gaituen misterioa. Gurekin badago ere, nolabait ez dago gure artean. Horregatik, gainditzen gaituen Misterioaren aurrean bizitzen ikastea da errezatzen ikastea.

- ***Zalantzaldian***

83. Egiatzko otoitzak beti dakar zerbait “berria” gure bizitzara. Beste norabide bat hartzen du bizitzak. Azken helburura zuzen daiteke dena. Otoizlariak ez du bakarrik ikusten bere burua. Argi berriak oinarrizkoa zer den eta bizitzari duintasuna zerk ematen dion ikusten laguntzen dio. Hitz batean, biziagoa eta egiazkoagoa bihurtzen da fede-mundua.

Hala ere, etor daiteke zalantza eta segurtasunik eza: ez ote da dena irudi-pena? Ez ote da hutsari hitz egitea? Askok bizi izan du zalantzaren eta ilunaldiaren esperientzia. Jeremias profetak, honela adierazten zuen batzuetan Jainkoarengan zuen konfiantza osoa: “Bedeinkatua, Jaunagan uste on duen gizakia, bere itxaropen Jauna duena. Ur ertzean landaturiko zuhaitza bezala izango da, ur biziaren ondoan botako du bere zuztarra; ez du beroaren beldurrik, haren hostoak beti hezerik” (Jr 17,7-8). Beste batzuetan, aldiz, honela egiten zion oihu Jainkoari: “Gutxienik ustean agortzen den erreka bihurtu al zara niretzat?” (Jr 15,18).

- ***Ilumaldian oihu egin***

84. Jarraitu ote daiteke Jainkoari otoitz egiten, bat ezertaz ziur ez dagoenean eta Berarengan sinesten duen ala ez jakin gabe? Egin daiteke, bada. Gehiago esan behar da: ilunpetan eta zalantzaldian eginiko otoitza biderik egokienetako bat izan daiteke egiazko sinesmenean hazteko. Ezin zaigu ahaztu fedea ez dela gure segurtasunetan edota gure zalantzetan oinarritzen. Harantzago dago, Jainkoak beste inork ezagutzen ez duen giza bihotzaren barru-barruan, alegia. Jainkoa geurekin izateko gogoia sumatzea da garrantzitsua. Honela zioen Lisieux-ko santa Teresak: “Zalantzak zalantza, jarrai bertan, sinesmenari ezkutatu zaion argi ikusezinari adi-adi begira”. Den-dena esan diezaiokegu Jainkoari, deus ere utzi gabe: geure zalantzak eta protestak, geure samina eta nahigabea, baldin eta Berarengana zuzentzen bagara. Esan diezaiokegu: “Zeurea nauzu: onik atera nazazu” (Sal 119 [118], 94), zer esan nahi diogun zehazki jakin gabe ere.

V.- OTOITZA BIZIBERRITU

85. Badira otoitza utzi ez duten pertsonak. Haurtzaroan ikasitako otoitzak errezatzen jarraitzen dute. Sarri-sarri ezpainetan daukate “Gure Aita”. Ama Birjinari errezatzen diote; santuren bati ere eskatzen diote laguntza. Une larrietan edo zailtasunetan daudenean errezatzen dute. Baita pozaldietan eta jai-giroan daudenean ere. Hauen otoitza batzutan bizi-bizia eta barrutik egina izaten da. Beste batzutan, berriz, ohitura hutsez eta mekanikoki egina. Nola biziberritu otoitz hori?

Askotan gertatzen den zerbait

86. Lehenengo eta behin, aski zabaldua dagoen zerbaitetaz ohartu behar dugu, fedearen eraginez eta zintzoki egoera horretatik ateratzeko.

- ***Zenbaiten egoera***

87. Kristau-bizitza leialki eta arduratsu eramateak biziberritu eta janaritu egiten du otoitza. Baina otoitzak gure bizitza garaitzen ez duenean eta ganoragabekeriatik ateratzea lortzen ez duenean, orduan moteldu egiten dira fedearen eskakizunak, eta jardun mekanikoa eta ohiturakeria bihurtzen da otoitza. Hori da askotan gertatzen zaiguna: errezoak egiten jarraitzen dugu, baina gure otoitza eta bizitza elkartzen ez diren bi bidetan ibiltzen dira. Eta gure bizitza bere bide-tik doa Jainkoaren deiak egiaz entzun gabe.

- ***Beharrezko erabakia***

88. Ez ditzagun geure buruak engaina. Otoitz era hori ez da Avilako santa Teresak esaten duen “Jainkoarekiko harremana”; horrelako bizitza ez da Kristori pozik jarraitzea. Erabaki bat hartu beharra daukagu. Bide egokia ez da otoitza murriztea, gero eta gehiago mugatzea edota baztertzea. Santa Teresak dioenez, “engainurik beldurgarriena” izango litzateke hori, izan ere “otoitza uztea bidea galtzea da”. Gure otoitza biziberritzea eta, Jainkoaren errukian eta Espirituaren eraginean uste ona jarriz, gure akatsak eta guzti, ondo otoitz egiten ikastea da gure bizitza eraberritu dezakeena.

Otoitza, adiskidetasun-esperientzia

89. Otoitzak eta errezoak ugaritzen baditugu ere, gure otoitza Jainkoaganako gure adiskidetasunaren agerpen eta iturri ez bada, blokeatua geratzen da. Otoitza, azken batean, Jainkoa maitatzea da, eta Berak maite gaituela jakitea.

- ***Adiskidetasunezko harremana***

90. Otoitza Jainkoarekin adiskidetasunezko harremana izatea da. Hala esaten du santa Teresak; izan ere, otoitz egitea hau besterik ez da, “gu maite gaituela dakigun Harekin adiskidetasunaz mintzatu eta askotan Berarekin bakarka sola-

sean aritzea”. Kristorengan agertzera eman zaigun Jainkoa gero eta sakonago ezagutu eta maitatzea, eta Haren maitasuna gero eta fede eta leialtasun handiagoz onartzea. Otoitzean maitasunak du erabateko lehentasuna. “Kontua ez da asko pentsatzea, asko maitatzea baizik”. Jainkoaren maitasuna gogoratu, gozatu eta eskertu. Maitasun horren eraginez bizi, eta berorren eskakizunei erantzun. Karlos Foucauld-ek oso labur eta zehatz esaten du: “Otoitz egitea Jainkoa maitatuz Berarengan pentsatzea da”.

- ***Jainkoarekiko adiskidetasunaren ikasketa***

91. Horrela otoitz egitea ez da gauza korapilatsua. Kontua ez da buru-ariketa neketsuak egitea. Besteri gu maitatzen uztea da. Santa Teresak dioenez, denen esku dagoen gauza da. “Pentsatzeko ez dute denek balio, baina denek balio dute maitatzeko”. Otoitz hau bihotzarekin egiten da. Hitzak lagungarri besterik ez dira Jainkoa maitatzen “egoteko”. Jainkoari maitasunez “begiratzen” ikastea, eta Berak maitasunez “begiratzen” digula jakitea, hori da garrantzitsua. Edozein otoitz edo errezo egitean Jainkoaren begirada horren berotasuna nabaritzea. Aitaren begirada delako, eta ez arakatzaila; uste ona eta maitasuna sortzen dituen begirada. “Balio handikoa zara niretzat, biziki estimatzen zaitut eta maitatzen” (Is 43,4). Orduan edozein otoitz, nahiz eta esaten ari garenaz zehatz pentsatzen ez egon, Jainkoarekin “egotea” da. Eta “egote” horrek elkartasuna sortzen du, biziberritu egiten eta fedea sendotzen. Ez dezagun esperientzia harrigarrietan pentsatu. Santa Teresak zentzu onez adierazten digu, batzutan “halako lagunarte onean egon nahi izatea”, hori dela guztia.

Ahozko otoitza

92. Pertsona gehienek otoitza “ahozkoa” esaten dioguna da. Ia beti oso zaharrak eta beneragarriak diren errezoak ezpaineekin errepikatuz egindako otoitza. Batzutan arretarik jarri gabe eta arin esandako errezoa izanik ere, sarri askotan ohikoa den otoitza. Nola errezatu otoitz hauek?

- ***Ahozko otoitzaren garrantzia***

93. Batzutan pentsatu ohi da, errezatzeko era hau maila jasoagoko otoitza egiteko gai ez direnena dela. Prestaera edota jakinduria sakonagorik ez duen jende xehearen otoitza. Hori pentsatzea oker egotea da. Ahozko otoitzak ez du adimenaren eta maitasunaren arreta baztertzen. Alderantziz, santa Teresak dio otoitz era honek “arreta” eskatzen duela, esaten ari garenaz oharturik egotea; eta, batez ere, Jainkoaganako maitasunaren oinarritzko jarrera dela eskatzen duena. Bestalde, ezinezkoa da adimen hutsezkoa den otoitz isila, noizbait hitzetan gauzatzen ez dena. Gure bihotzean egosten duguna, azken batean ezpainez ahoskatzen dugu. Eta ozenki edo ahopean esaten, oihukatzen edota norberaren ahotsez kantatzen ditugun hitzak dira Jainkoarekin egiaz harremanean sartzera eramaten gaituztenak, gorputz eta arimaz.

- ***Gure errezoak biziberritu***

94. Jainkoarekin mintzatzeko denok gure aurrekoetatik jasotako otoitz erak erabili ohi ditugu. Lehenaldiko fededunek erabilitako salmo eta eskariak errep-

katzen ditugu. Batez ere, “Gure Aita” errepikatzen dugu, Jesusek erakutsitako otoitza. Gauza ona da Jainkoarekin mintzatzeko esaldi horiek lagungarri hartzea. Baina ez dugu ahaztu behar, otoitza zerbait pertsonala dela. Ez dezake beste inork nire izenean otoitz egin. Hitz horiek neure egin behar ditut, nire bihotza Jainkoari ireki nahi badiot. Errezo horien atzean nik neuk egon behar dut, neure eskari edota goralpenarekin, neure esker on edota kexarekin.

Errezo horiek neure egiteko erarik egokiena, noizbait gelditu eta astiro, esaldiz esaldi, esaten dudana oharturik eta beren mamia dastatuz esatea da. Kontua ez da “gureaitaka” eta “agurmariaka” gelditu gabe nolanahi aritzea, baikik eta Jainkoarekin mintzatzea. Beste Pastoral Idazki batean, Jesusek egunero esateko utzi zigun “Gure Aita”-ren azalpena egin genizuen³. Otoitz hori da, batez ere, geureganatu behar duguna. Lehenengo, Jesusen ikasle guztien hiru gogo handi horiek: “Santu izan dadila zure Izena!”, ez nirea. “Etor dadila zure Erreina!”, ez gurea. “Egin dadila zure nahia!”, ez nirea. Eta, gero, kristauaren lau eskari handiak: “Emaguzu egun honetako ogia”, guztioi. “Barkatu gure zorrak”, eta laguniezaguz barkatzen. “Ez gu tentaldira eramanez”. “Atera gaitzazu gaitzetik”, gaitz guztietatik. Kristauarentzat oinarritzkoa den otoitz honen mamian gehiago sakondu nahi duenak, azalpen aberatsa aurkituko du Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbidean⁴.

- ***Gurutzearen seinalea***

95. Haurtzarotik ikasi dugu geuregan gurutzearen seinalea egiten. Gurutze honek, bere burua gugatik eman zuen Jainko hurbila ekartzen digu gogora. Itxaropena ematen digu, bidea erakusten, Kristo berpiztuagan izango dugun azken garaipena ziurtatzen digu. Baina zeinu horrek esanahi sakonagoa du. Bekokitik bularreraino eta ezkerreko sorbaldatik eskuineko gurutze egitean, geure bekokia, ahoa eta bularra sagaratzen ditugu; eta Jainko Hirutasunaren misterioa onartzeko gogo adierazten dugu; horrela, gure buruko pentsamenduak, gure ahoak esango dituen hitzak eta gure bihotzetik sortuko diren sentimendu eta nahiak kristauari dagozkion gisakoak izango direla adierazten dugu, Aitarengan uste osoa jarrikerik, Jesusengan gizon egindako Semeari leialki jarraituz, eta Espirituaren eraginez arnasberritzen den kristauari dagozkionak.

Otoitz egin bizitzatik

96. Gure bizitzarekin zerikusia duen guztia izan daiteke otoitz-gai. Pozaldi edota kezka bat, une zoriontsu edota ezbehar bat, arrakasta edota beldur-egoera bat. Jainkoarekin mintzatzen gara une horretan bizi dugunetik. Eta hori da, hain zuzen, ahozko gure otoitza biziberritzeko erarik onena.

- ***Otoitza, bizitzaren ispilu***

97. Bizitzatik otoitz egiteak eguneroko bizitza “otoitz-gai” bihurtzea esan nahi du. Bizitzarekin zerikusirik gabe, era abstraktuan errezoa egiten duenak ohike-

³ *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*, 1997ko Garizuma–Piztuerako Pazkoko Pastoral Idazkia, 76. zenb.

⁴ Ikus *Catecismo de la Iglesia Católica*, 2777-2856. zenb.

riazko otoitz mekanikoan erortzeko arriskua du. Bizi duenarengana erne dagoenak, ordea, otoitza eraldatzen ari da etengabe. Gizaki orok agian kezka, zeregin, presaz, nekez eta arazoz betea dagoen bere bizitzatik egin behar du otoitz. Ez da beharrezko zailtasun horiek igarotzen uztea, Jainkoaren aurrean jartzeko era egokiagoa aurkitzeko. Geure eguneroko bizitza islatzen ez duen otoitza “otoitz hila” da.

- ***Egoera desberdinetatik***

98. Otoitz era berezia dago bizitzako aldi bakoitzerako: haurtzaroan, gaztarora esnatzekoan, heldutasuna lortu denean edota zahartzaroko gainbeheraldian. Otoitz era berezia une eta egoera bakoitzerako. Gure otoitza inoiz funtsik eta ganorarik gabea gertatzen bada, gure bizitza egoera desberdinetan aurkitu arren guk beti era berean errezatu nahi dugulako da. Jainkoak gugan ari duen jardunari arreta jartzen badiogu, berehala konturatuko gara egoera bakoitzean esanahi berezia duela otoitzak: tristuraldian edota lur jota gaudenean, pozaldi edo bakealdian, beldurrez edota kezkatuta gaudenean. Ez da era berean otoitz egiten bihotza triste edota gogoia bare dagoenean, bizitza nekagarri zaigunean edota onik gaudenean, barkamena edota grazia bat eskatzean. Pertsonak otoitz egiten ikasten du bere barne-egoera Jainkoari azaldu eta Berari bere bizitza zabaltzen asmatzen duenean, baita dena gaizki doanean ere. Hala egiten zuen Jobek: “Aspertuta nago bizitzaz! Ez ditut gordeko nire kexak, bihotzeko samina isuriko dut. Esango diot Jainkoari: ez nazazu erruduntzat har, esadazu zertaz salatzen nauzun” (Jb 10,1-2).

Geure egoeratik Jainkoari otoitz egiteko era honek ez du besteengandik urrutiratzea esan nahi, izan ere, geure bihotzean entzun behar dugu gure senideen pozaldi eta sufrimenei oihartzuna.

Ebanjelioaren irakurketa

99. Askotxo dira beren etxeetan Biblia daukaten kristauak; baina sarritan ez dira asko Biblia hartu eta irakurtzen dutenak. Ez daukate, ez ohiturarik, ez prestaerarik horretarako. Baina ez dago Biblia –eta, batez ere, ebanjelioak– irakurtzea baino bide egokiagorik Jainkoari entzuteko eta Kristoren Espirituari gugan bere lana egiten uzteko. Zer egin dezake prestaerarik gabeko fededunak, Bibliaren bidez Jainkoari entzuteko?

- ***Argibide praktikoak***

100. Lehendabizi, denak utzi eta isiltasun pixka bat egin behar da, liburua zabaldu aurretik. Beste ahots, bizikizun eta mezuetatik aldendu, eta egingo dugunaz konturatu behar dugu: “Irakurriko dudana liburua ez da nolana hikoia. Jainkoari entzutea noa, Kristoren mezua onartzera”.

Gero, pasarte bat aukeratu –ebanjelioetatik hastea komeni da– eta astiro-astiro irakurtzen da, ohi baino askoz astiroago. Honek besterik gabe lagundu egingo digu testuak dioena hobeto jasotzen. Bibliak dakartzan ohar eta azalpenek argitu egingo digute zenbait esaldi. Ilunak edo ulergaitzak diren esaldiak utzi egin ditzakegu, eta ulertzen dugun hartan gelditu. Garrantzitsua ez da dena

ulertzea, baizik eta Jainkoari entzutea. Bide praktikoa zera izan daiteke: astean zehar hurrengo igandean aldarrikatuko den Ebanjelioko pasartea irakurtzea.

- ***Jainkoaren Hitza entzun***

101. Pasartea (parabola, gertaera, Jesusen hitzak) osorik irakurri ondoren, berriro irakurtzen dugu astiro. Baina oraingoan helburu jakin batekin: Jainkoak niri zer esaten didan entzuteko. Horretarako hiru eratako galderak egin ditza-kegu: “Jauna, zer erakutsi nahi didazu pasarte honetan?, zein egia gogoratu nahi didazu?, bizitzako zein alderdi argitu nahi didazu?”. Beste galdera hau ere egin dezakegu: “Jauna, zertara egiten didazu dei?, zertara eraman nahi nauzu mezu honekin?, zertan aldatu behar du nire bizitzak?”. Azkenik, beste galdera hau: “Jauna, nolako konfiantza esnarazi nahi duzu nire bihotzean?, nolako itxaropena esnarazi nahi duzu zeure Hitzaren bidez?”. Ebanjelioa gisa honetan irakur-tzen duenaren bizitza aldatu egiten da pixkana-pixkana.

Otoitza bizitzari buruz

102. Kontzientzi azterketa gaizki ikusia dago gaur egun. Beharbada, erruduntasunaren ariketa gisa erabili izan delako, eta ez ziolako laguntzen pertsonari fede-bizitzan hazten. Baina, “kontzientzi azterketa” deitu, edota “otoitza bizi-tzari buruz” nahiz “egunaren ebaluaketa”, inork ez dezake uka, hori dela biderik onenetakoa etengabeko bihozberitze-jarreran bizitzeko.

Bakoitzak aurkitu behar du unerik aproposena (lanetik itzultzean, eguna-ren bukaera, lotara joatean). Hartu behar den jarrera ez da nor bere barruan bildurik geratzea, baizik eta eguna laburki Jainkoaren aurrean berrikustea. Lehenbiziko gauza eskerrak ematea da, Beragandik egunero hartzen ditugun gauza onak aitortzea; oso hurbil daukagu Jainkoa geure bizitzan, eta on da kontura-tzea zenbat gauza on eta pozgarri dagoen eguneroko gure bizitzan. Bidelagun dugun Jainko honen argira, geure oharkabekeriaz, ganoragabekeriaz eta federik ezaz konturatzen gara. Kontua ez da azterketa zehatz eta oso bat egitea. Aski da gure leialtasun ezaz ohartzea, Jainkoak barkatzen digula jakitea eta Berak bihozberritzera egiten digun deia entzutea.

Kristau-gogoeta

103. Gogoetaz hitz egiten denean, batzuek uste dute zerbait korapilatsua dela, metodo eta teknika zailak menperatzen dituztenen eskura bakarrik dagoena. Gogoetaren alorrean bide eta maila asko dago, jakina. Baina, oinarrian ekintza xumea da eta edonoren esku dago erabiltzea.

- ***Sinesmenetik gogoeta egitea***

104. Kristau-gogoeta sinesmenetik hausnarketa egitea da, Ebanjelioaren ara-bera bizitzeko argia eta indarra aurkitzeko. Fedearen, Jesu Kristoren edota Jainkoaren alderdiren bati buruz pentsatzeko edo hausnartzeko denboraldi bat hartzea. Ez da buruzko ariketa hutsa. Kontua ez da pentsatzea bakarrik, baizik eta maite dugun Norbaitengan pentsatzea. Gauza gure ideia edo pentsamenduetan

tan geratzen bada, ez dugu geure bihotza Jainkoarengana jasotzen. Horregatik, aholku hau ematen du santa Teresak: “Arazoa ez da asko pentsatzea, asko maitatzea baizik; beraz, egizue maitatzera gehien esnarazten zaituztena”. San Ignazio, berriz, zera esaten digu: “Gure arima ez du asko jakiteak asebetetzen, gauzak barruan hausnartu eta gozatzeak baizik”.

- ***Nola egin gogoeta***

105. Norberak aurki dezake bere modurik egokiena gogoeta egiteko. Horretarako metodoa ez da bakarra. Dena izan daiteke gogoetagai: harriduraz eta esker onez izadia kontenplatzea; mundu zabaleko gertakariak; geure barruan astindua eman digutelako “pentsakizun” ematen diguten esperientzia pozgarri edota mingarriak; ezaguna zaigun otoitzen baten esaldiak; astiro egindako libururen baten irakurketa. Eta, batez ere, Bibliako pasarteren baten irakurketa: parabola bat, Jesusen esaldiren bat, salmoren bat. Ohiko geure arinkeria eta sakabanaketatik ateratzea da garrantzitsua, argiren bat onartzeko, deiren bat entzuteko eta, batez ere, “maite gaituela dakigun Harekin” solasean egoteko.

Zenbait otoitz

106. Hitz erdi bat esan nahi dugu otoitz egiteko beste era batzuei buruz ere. Hain zuzen ere, bere arima Jainkoagana jasotzeko bide izan daitezke zenbaitentzat.

- ***Andre Mariari buruzko otoitza***

107. Betidanik izan da gure herrian Andre Mariarenganako debozio handia eta bizia. Askotxo dira, une bereziki larri edo zailtan, berarengana jotzeko berezko joera dutenak.

Andre Mariak, lehenengo eta behin, kristau-otoitzaren eredu izan behar du guretzat. Berak Jainkoaren borondatea bilatu eta onartzen erakuts diezaguke otoitzean, baita gertatzen ari zaigunaren esanahia ezertxo ulertzen ez dugunean ere: “Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala” (Lk 1,38). Berak lagun diezaguke, Jainkoa goratzeko arrazoiak gure bizitzan aurkitzen: “Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barruan; Jainkoa baita nire salbamena” (Lk 1,46-47). Beragandik ikasten dugu, une ilun eta zalantzazkoetan Jaunari geure kexuak azaltzen ere: “Seme, zergatik egin diguzu hori?” (Lk 2,48). Mariak erakusten digu behartsuen alde errezatzen eskariak eginez: “Esan zion Jesusi: ez daukate ardorik... Egizue Berak esaten dizuen” (Jn 2,3.5). Bera da kristau-misterioaren gogoeta eta barruratzearen eredu: “Mariak gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz” (Lk 2,19).

108. Mariarengana jotzen dugu Jainkoarekin topo egiteko ere. Berez, gure otoitza zuzenean Jainkoari edota Jesu Kristori bakarrik zuzendua egon daiteke. Baina Jainkoa, Mariari esker, Jesusengan gizon egin izanak esanahi berezia ematen dio guk Mariarekin dugun harremanari. Jesusen Ama, Kristoren “senide” garen guztion Ama ere bada. Horregatik, gure otoitza Jainkoari bakarrik zuzendua egon arren, eta Jesu Kristo izanik ere gure Bitarteko bakarra, geure

otoitzarekin lotzen dugu Maria, Jainkoak bere Semearen Ama izateko aukeratu zuena. Erregutu diezaiokegu berari egiaz Ama, Laguntzaile, Sorosle deituz. Mariak, bere Semearen bitartekotza ezertan gutxitu gabe, baizik eta dena Aitagandik Semearen bidez hartuz, eskari egin dezake ama-bihotzez gure alde.

Andre Mariarenganako era askotako debozioek (arrosarioa dela, Angelusa, Santutegietara egindako ikustaldiak, jaiegunak...) ez gaituzte Jainkoagandik edota Kristorengandik aldentzen; alderantziz, bere Seme Jesusengana eta Aitarenganako maitasunera erakartzen gaituzte.

- ***Santuei egindako otoitza***

109. Askotxo dira beren erlijio-bizitzatik santuenganako debozioa baztertu dutenak antigoaleko ekintza gisa, ederra, bai, baina gure egunotako fededunari ez dagokiona bailitzan. Nola jarraitu gaur egun san Antoniori, san Frantziskori edota Loiolako san Inaziori otoitz egiten? Jainkoaren bila bagabiltza, zertarako jo santuengana?

Liturgian Eliza ez da santuengana zuzentzen hauek guretzat grazi iturri izan daitezen; baizik eta Jainkoaren aurrean “gure alde” izan ditzagula eskatzen die: “Otoitz gure alde”. Santuak ez dira bitartekoak Jainkoaren eta gure artean. “Jesu Kristoren lagunak” dira, eta “gure senideak” (*Lumen gentium*, 50. zenb.). Bat eginik gaude beroriekin etengabeko elkartasunean Jainkoaren aurrean. Baina Aitagandik hartzen dugu salbamena, Kristoren bitartez. Santuei dei egiten diegunean, ez ditugu Jainkoaren eta gure artean jartzen; gure otoitza Jainkoari zuzentzen diogu, santuekiko gure elkartasuna biziagotuz. Gauza guztiak Jainkoagandik hartzen ditugu Kristoren bitartez, baina “bitartekotza horrek ez du gizakien lankidetzaz baztertzen, baizik eta iturri bat-beretik hartzen duten era askotako lankidetzaz sortzen du gizakiengan” (*Lumen gentium*, 62. zenb.).

110. Santu jakin batenganako debozioak badu bere lekua gure kristau-bizitzan, batez ere ebanjeliozko bizitzaren alderdi berezi bati buruz Kristorenganako gure jarraipena sendotzen laguntzen digunean. Zergatik Avilako santa Teresari laguntza ez eskatu, egiazko otoitzean aurrera egiteko?, zergatik Asisko san Frantziskori ez eskatu, senidearteko eta bakezko bizitza eramateko?, zergatik Loiolako san Inazioarengana ez jo, bereizketa-uneetan nahiz bihozberritzeko laguntza eskatuz?, edota Xabierko san Frantziskorengana, ebanjelizatzaile-espiritua indartzeko?

- ***Hildakoen aldeko eskaria***

111. Hilen aldeko gure otoitza ere guztiok Kristorekin dugun elkartasun horretan oinarritzen da. Jainkoari otoitz egiten diegunean, gizaki guztiekiko elkartasunean sentitzen gara, baita dagoeneko Jainkoarekin betieran bizi direnekin ere. Ez du esan nahi hilekiko ikuspegi okerreko kultu hura indarberritu behar denik. Ezta hilekin ustezko harreman espiritista izaterik ere. Haiekin senidetasunezko elkartasuna izatea esan nahi du, denok elkartzen gaituen Jainkoaren betiereko maitasunetik sortzen den, eta heriotzak ere desegin ezin dezakeen elkartasuna.

Geure bizitzako zati izan direlako guk maite ditugun horiek bizirik daude Jainkoarentzat. Horregatik, horiek gogoratzen eta maitatzen jarrai dezakegu. On egin ziguten hemen gurekin bizi izan ziren bitartean; gaur egun eskertu egin dezakegu, Jainkoagandik, berorien maitasuna. Kalte egin ziguten, agian; gaur egun gure barkamena eskain diezaiekegu. Maitatzen jarraitzen dugu; otoitz egin dezakegu beraien alde. Jainkoa da lotura horiek eta egiazko elkartasun hori posible egiten duena. Jainkoaren maitasun betierekoa eta unibertsala da gure maitasunaren euskarri eta bizi-emaile.

VI.- KRISTAU OTOITZA ZAINDU

112. Gure Pastoral Idazkiaren azken zati honetan era praktikoa eta zehatzagoan planteatu nahi dugu, zer egin dezakegun otoitza hobeto zaintzeko geure bizitza pertsonalean eta kristau-elkartean.

Bizitza pertsonalean

113. Guztiok izan behar dugun lehenengo ardura, geure otoitz pertsonala zaintzea da, liturgi ospakizunetan parte hartzera, edota besteekin noizean behin otoitz egitera bakarrik mugatu gabe. Bakoitzak Jesusen deia entzun behar dugu: “Zu, otoitz egitekoan, sar zaitez zeure gelan... eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari” (Mt 6,6).

• **Barne-isiltasuna zaindu**

114. Gaur egungo gizon-emakumeok gauza asko ikasi ditugu, baina, batzuetan, ez dakigu geure barruraino iristen. Bizitza modernoak sakabanatu egiten gaitu mila zeregin, harreman eta bizikizunetan. Noizean behinka beharrezko dugu “geure buruekin topo egitea”. Barne-isiltasuna gainazaletik geure barne sakone-nera garamatzen prozesua da, kanpoaldetik barrualdera, sakabanaketatik bata-sunera. Aholku hau ematen du san Agustinek: “Ez zaitez barreiatu; gizaki bar-nekoian bizi da egia”.

115. Barne-isiltasunak ez du isolatzea edo neure buruari begira geratzea esan nahi. Fededuna “Jainkoaren aurrean jartzeko” barneratzen da, Jainkoarekin harremanetan jartzeko. Hainbat teknika erabil daitezke (zen, yoga, gogoeta transzendentala, gorputz-jarrera), baina geure ariketen menpe ez geratzekotan. Ez dugu perfekzionismoaren morrontzapean ere geratu behar. Jainkoaganako gogo bizia da garrantzitsua, uste osoz Jainkoaren maitasunera zabalik egotea.

116. Otoitz egiteko beharrezkoa da “isiltasun egitea”. Otoitza landu nahi dutenen artean asko entzun ohi den esaldia da hau. Zer esan nahi du? Isiltasunak, beste ezer baino lehen, kanpoko zaratatik ihes egitea eskatzen du; baina ez da nahikoa. Geure barrua “betetzen” duen, eta geure espirituari Jainkoagan kokaturik egotea galarazten dion hainbat mezu, zirrara, irudi eta oroipen ere isilaraztea eskatzen du. Baina “kristau-isiltasuna” ez da mutu geratzea. Norbaiten aurrean isilik geratzea da. Isiltasuna Jainkoari entzuteko era da, Berarekin harremanetan jartzeko era. Beste ahotsak isilaraztea, arreta maitasunez Jainkoari bakarrik jartzeko.

117. Bakoitzak bere bidea erabili behar du. Norberak daki, beste inork baino hobeto, zerk laguntzen dion Jainkoarengana zabaltzen. Azken batean, san Buenaventurak egiten zuen deia entzun behar da: “Tira, gizontxo, utzi une batean ohiko zeure zereginak; urrun zaitez zeure pentsamenduen zaratatik, eta sartu txolarte batean zeure barruan; jaurti zugandik kanpora larritzen zaituzten arazoak; alendu zugandik zeure kezka neketsuak; egon zaitez denboraldi batean Jainkoarekin, eta hartu atsedean, unetxo batean bada ere, Haren aurrean. Sar zaitez zeure arimaren gelan; utzi gauza guztiak, Jainkoa izan ezik eta Hura bila-

tzen lagun diezazukeena izan ezik; eta horrela, ate guztiak itxirik, zoaz Harengana, Esan Jainkoari: zure aurpegi bila nabil, Jauna, zure aurpegia ikusteko irrikaz nago”. Ahalegin honekin Jainkoarekin topo egiteko prestatzen gara, baina jakinik, Jainkoa bera dela Beragana erakartzen gaituena eta bere graziaz prestatzen.

- ***Otoitzaren maiztasuna***

118. “Egin otoitz aspertu gabe” (1 Ts 5,17). Hau da benetako fededunaren gogoia. Nola gauzatu hori? Lehenik eta behin, etengabeko jarrera bat hartu behar da: pertsonaren sorburu eta azken helburutzat Jainkoa hartu; jomuga gisa Jainkoa, gure Aita, izanez bizi; bizitzaren aurrean esker oneko eta konfiantza handiko jarrera izan; ez ahaztu Jainkoak arnasten duela nire bizia erro-errotik; gauza guztietan Beraren borondatea eta Haren Erreinuaren etorrera bilatzen lan egin. Baina, gure jarrera hau desagertzea edo atrofiatzea nahi ez badugu, beharrezko dugu une bereziak hartzea errezatzeko.

119. Nolako maiztasunez? Erantzuna ez da zaila. Jarrera horri eusteko beharrezko den hainbat aldiz egin behar da otoitz. Zehazki, garrantzitsua da egunaren berezko erritmoari jarraituz otoitz egitea, izan ere egun bakoitza gure bizitzaren laburpena bezala da. Nola berreskuratu era xumean goizeko eta gaueko otoitza?

Esnatu eta egunari hasiera ematea ez da gauza hutsala; egun berri bat oparitzen zaigu bizitzeko. Une egokia izan daiteke Jainkoaren aurrean geure baitara bildu eta, otoitz ezagunen baten laguntzarekin, egun berriagatik Berari eskerrak emateko eta argia eta indarra eskatzeko. Patxadaz otoitz egiteko betarik eta baldintzarik ez daukanak bere bihotza jaso dezake Jainkoagana, esanez: “Zuk maite nauzu, Jauna, eta bidelagun izango zaitut gaur.” Aski izan daiteke. Egunero geure fedea biziberritzea da garrantzitsua.

Gaueko otoitza desberdina da. Eskuarki, denbora eta ahalbide gehiago izan ohi da gauean. Atsedean hartzera joatea eta lo egitea uste onez Jainkoaren eskue-tan jartzeko ekintza bihur daiteke. Barkamena eskatzen diogu eta Haren errukian jartzen dugu geure uste ona. Horretarako lagungarri izan ditzakegu gurutze egitea edota otoitz xume bat. Denbora eta sosegua izanez gero, kontzientzi azterketarako unea izan daiteke, baita Ebanjelioa irakurri edota elkarrekin otoitz egiteko ere.

120. Agian, hori guztia hobeto egin daiteke asteburuan, geure zeregin eta lanetatik aske gaudenean, eta denbora eta patxada gehiago daukagunean. Bada otoitz era bat lan-egunetarako, eta beste otoitz era atsedean eta jai-egunetarako. Egun bakoitzaren nahiz astearen erritmoan sarturik dauden otoitz-une hauek “Jainkoaren seme/ alaba” gisa ohartuago bizitzen laguntzen digute. Otoitz hori ez da obligazio bat. Hori beharra da bere bizitza Jainkoarekin “adiskide batek bere adiskidearekin bezala” (Loiolako san Inazio) bizi nahi duenarentzat.

Orduena deritzan liturgi otoitzak, soseguz eta bere garaian, elkartean nahiz bakarka egindako otoitzak, bide ematen die elkarte kontenplalariei, erlijioso eta erlijiosoei, apaiz edota laikoei, salmoak errezatzeko eta beren bihotza Jaunarengana jasota bizitzeko.

- ***Otoitzaren kanpoko baldintzak***

121. Garrantzi handia du leku egokia izateak isiltasunean bildu eta otoitz egiteko. Ez da beti posible izaten. Parrokia eta erlijioso-elkarteek ahalegin handiagoa egin dezakete eliza eta kaperak denbora gehiagoz zabalik egon daitezen, leku egokia aurkitu ahal izateko otoitz pertsonala edota taldekoa egiteko. Norberaren etxean ere inoiz txokoren bat aurki daiteke otoitz isilerako. Baina otoitz nonahi egin daiteke, autoan, mendian, autobusaren zain nahiz ariketak egiteko ibilaldi edo lasterketaldi bat egin bitartean.

122. Une egokia aurkitu behar da otoitzerako. Ez da ona esatea: “Noiznahi egin dezaket otoitz”. Beharrezko da disziplina izatea. Zehaztu egin behar da: gosalaurrean?, goizerdian?, egunaren bukaeran? Norberak ikusi behar du nola doakion hobeto.

123. Barnera biltzen gehiago lagunduko dion gorputz-jarrera aurkitzea komeni da. Bizkarra tente edukitzen eta arnasaren erritmoa zaintzen ikasteak lagundu egin dezake sosegua eta bakea aurkitzen. Pertsona batzuei on egiten die zenbait keinu adierazteak: begiak itxi, eskuak bildu, besoak jaso edota irudi bati begiratzeari lagungarri izan daitezke otoitzerako.

124. Otoitzerako lagungarri batzuk eskura izatea komeni da: Biblia, ebanjelioak, salmoak, Orduen Liturgiako liburua, otoitz-liburutxoren bat, arrosarioa. Irudi eder batek edota Jainkoarenganako gogoia adierazteko pizten den kandela batek ere lagundu egin dezakete.

Etxean

125. Orain dela bi urte, familiako otoitzari buruz hitz egin genizuen⁵. Ez zaigu alferrikako iruditzen orduan esaten genituen gauza batzuk gogora ekartzea.

- ***Gurasoen otoitza***

126. Lehen urratsa gurasoek egin behar dute, elkarrekin otoitz egiten ikasiz. Zailtasunik handiena senar-emazteek ohiturarik ez izatean eta hasierako halako lotsa pixka bat izatean egon ohi da. Baina, apalki otoitz egiteak on egiten dio bikoteari, estutu egiten du beren arteko lotura eta hori da oinarria etxean otoitza sustatzeko. Otoitz hau, askotan, Jainkoari eskerrak emateko izango da, elkarri ere eskerrak emanez. Batzuetan Jainkoari barkamena eskatzea izango da, elkarri eskainitako barkamenaz prestatu. Sarritan seme-alabengatik Jainkoari egindako eskaria izango da. Keinu gutxi izango dira kristauagoak, otoitz egiten ez dakiten beren seme-alaba txikien, edota otoitz egin nahi ez duten seme-alaba hazien, izenean gurasoek egiten duten otoitza baino.

⁵ *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*, 1997ko Garizuma-Piztuerako Pazkoko Pastoral Idazkia, 98. zenb.

- ***Seme-alabei otoitz egiten irakatsi***

127. Otoitz egiten irakasteko ez da aski seme-ari-alabari lo hartu aurretik errezoak egiteko esatea, edota aitaren egin al duen galdetzea. Honek ohitura mekaniko batzuk sor ditzake; baina otoitza gurasoengandik ikasi beharreko esperientzia da. Ikusi egin behar ditu haurrak errezatzen. Gurasoak isiltasunean egoten, begiak ixten, arrosarioko aleak eskuetan erabiltzen edota Ebanjelioa astiro irakurtzen ikusten baditu, une horien garrantziaz jabetzen da haurra, Jainkoaren itzala etxean gauza ona dela nabaritzen du, bere kontzientzian sarturik geratzen diren hizkuntza erlijioso eta zeinuak ikasten ditu.

Komeni da haurrak keinuren bat egiten ikastea (aitaren egitea), otoitz xume edo kanturen bat errepikatzea. Haurrak ikusten duen bezala egiten du otoitz. Isiltasuna, Jainkoaganako konfiantza, alaitasuna, Ebanjelioaren garrantzia, bere gurasoen ondoan otoitz eginez ikasten du dena. Iritsiko da ordua haurra bera otoitza hasteko, mahaia bedeinkatzeko edota Ebanjelioa irakurtzeko bere-berez gai izango dena. Horrela erlijio-sentiberatasuna esnarazten da berarengan. Ez dago ezer esperientzia hau gerora ordezkatzeko dezakeenik.

- ***Familian otoitz egin***

128. Gurasoek jakin behar dute, beren seme-alabei otoitz egiten erakusteko biderik onena beraiekin otoitz egitea dela. Familia bakoitzak aurkitu behar du otoitz egiteko bere era. Ez da hain zaila seme-alaba txikiaren ondoan egotea, oheratzekoan otoitzean laguntzeko. Ama askok badaki hori oso egoki egiten, haurrari Jainkoari eskerrak ematen edota uste osoz eskari egiten lagunduz. Oso ona da haurrarentzat garrantzitsuak diren unez baliatzea: festa bat izan duenean, erregalu bat jaso duenean; bere senideekin borrokatu denean; gaixorik dagoelako gaizki sentitzen denean.

Gaztetxo eta gazteekin mahaia bedeinkatzea bezalako otoitz labur bat egin daiteke egunero; baina garrantzitsuagoa izango da egun sinalatueta beraiekin batera otoitz xume bat prestatzea: familiako norbaiten urtebetetzean, gurasoen ezkontzako urtemugan, oporretara irten aurretik, ikastaro-hasieran, Gabonetan, urte-bukaeran. Kristauek etxeetan ohitura erlijioso berriak nola sartu ere pentsatu egin beharko genuke. Ohitura bat, xumea baina esanguratsua, lotara joan aurretik denak egongelan biltzea izan daiteke elkarrekin, “Gure Aita” errezatu eta atseden ona elkarri opa izateko.

129. Otoitzaren bultzada etxean gurasoen erantzukizunaren baitan dago, baina baita hauek parroki elkartetik hartzen duten laguntzaren baitan ere. Familiapastoralta indartzen jarraitzea eta guraso kristauei laguntza ematera adoretzen zaituztegu. Horietako askok argibide, iradokizun eta lagungarri pedagogikoak behar dituzte. Ez dirudi hain zaila izan behar duenik, zenbait parrokiatan guraso-talderen bat izatea, beren fedea indartzeko eta guraso kristauek eginkizuna betetzen laguntzeko elkartuko dena.

Kristau-elkartean

130. Lehenengo kristau-elkarteei buruz esaten zaigu “zintzo irauten zutela apostoluen erakutsietan eta elkarte-bizitzan, ogia zatitzean eta otoitzean” (Ap Eg 2,42). Hau da haiek zuten helburua: bihotz bat eta arima bat izanez bizitzea. Nola indartu gaur egun gure artean elkarteko otoitza?

- ***Elkarteko otoitza***

131. Elkarteko otoitza egiteko ez da aski zenbait pertsona batera otoitzean aritzea. Beharrezko da elkarte bat egitea eta denek otoitz bat-berean parte hartzea. Jainkoari dei egitean, egiaz “gu” esan ahal dezatela inor apartaturik geratu gabe. Batean biltzeak berak, senide-sentimendu berdinak izateak eta otoitza egiteko erak, beraiengan bizi den Espiritu batek-berak bizi-arnasa ematen diela adierazi behar du (ikus Erm 8,26). Ez dago esan beharrik, otoitz honek ez duela inoiz ere talde itxi baten otoitz bihurtu behar. Kontraesana izango litzateke.

132. Era askotakoa izan daiteke elkarteko otoitza, ez baitago egitura jakin bat edota liturgi eredu finko bat erabili beharrik. Jainkoaren aurrean isiltasunean egon daiteke, edota Haren Hitzak elkarrekin entzun, era askotara. Aurrez prestatutako otoitzak erabil daitezke, edota ezarian-ezarian sortzen utzi. Denek batean otoitz bat esan daiteke, edota txandaka bi taldetan. Salmoak esan edota abestu egin dezakete. Otoitza denen eskura egotea da garrantzitsua; intimismoa baztertzea; ohiturakerian ez erortzea; eta otoitza taldearen fede eta bizitzatik bereberrez sortzea. Horrelako otoitza ez da elkartearen adierazgarri bakarrik; oso bide ona da parrokiaren baitan elkarte-bizitza indartzeko.

- ***Otoitzerako elkarketak***

133. Parrokiek dei egin beharko liekete fededunei, ez meza edo beste sakramentuak ospatzeko bakarrik, baita liturgiakoak ez diren otoitz-elkarketak egiteko ere. Hor ikas dezake kristau askok era praktikoan otoitz egiten, Jainkoaren Hitzak entzuten edota nor bere baitaratze-bideak aurkitzen. Horrelako elkarketak pastorgileentzat izan daitezke, edota gazte, guraso nahiz pertsona adintsuentzat. Eta era askotakoak izan daitezke otoitzaldi hauen egitura eta ezaugarriak.

134. Baina, aniztasun eta sormen horren barruan, komenigarri izango litzateke Elizaren liturgi ospakizunen argira eginak izatea eta, batzuetan, otoitz liturgiakoaren luzapen edo zehazpen izatea. Zentzu honetan, garrantzia izan dezakete Abendu eta Eguberriko liturgialdi berezietan eratutako otoitz-elkarketek, itxaropena edota bakegintzarako ahalegina janaritzeko; Garizuma eta Pazkoaldian, bihozberritzea eta bizitzaren berrikuntza indartzeko; Mendekoste-bezperan, Espiritua onartzeko.

- ***Orduen otoitza***

135. Orduen Liturgiak ez dauka zertan elkarte kontenplari, erlijioso-erlijiosa eta apaizentzat gordea izan. Liturgi otoitz hau da elkarte-otoitzik bikainena, eta Jainko-herriarentzat ere janari egokia izan daiteke. Parrokia batzuk hasiak dira Gorespen edota Bezperetako otoitzari indar ematen, gutxienez liturgialdi bere-

zietan edota jaiegun nagusietan. Oso ondo iruditzen zaigu ekimen hau eta erabaki sendoagoz bultzatzea nahiko genuke.

Hainbat dira horretarako arrazoiak. Alde batetik, okerreko otoitz-ihardueretatik aska dezakeen liturgi egitura duelako. Bestetik, sormenerako eta otoitzera biltzen den taldearen bizitzara egokitzeko bide ematen duelako. Gainera, salmoekin otoitz egiten irakasten du, goralpen eta esker oneko jarreraren hezten, eta baita eskari eta barkamen-eskaerako jarreraren ere. Zenbait fededunentzat espiritu-bizitzaren iturri izan daiteke eta kristau-konpromisoa bizitzeko edota ebanjelizatze-lanerako janari.

- ***Eukaristiaren gurtza***

136. Sagrarioan gordetzen den gure Jaunak aurretik elkarteak ospatu duen Eukaristia gogoratzen digun oroitzapena da. Eukaristi ogi hau ospakizun haren oihartzuna bezala da: bere ondorioak guganaino iristarazten ditu, eta Kristo egiaz beretarren artean dagoela adierazten du era berezi-berezian. Hemen ere egiaztatu egiten dira Berpiztuaren hitzak: “Ni zuekin nauzue egunero, munduaren azken eguna arte” (Mt 28,20). Baina Kristo sakramentuz gure artean egote hau ez da era estatikoan ulertu behar; salbamenezko egintza da, bere burua “eskainiz egotea”, bere Semea guretzat Salbatzaile eginik ematen digun Aitaren dohaina. Horregatik, hain zuzen, sagrarioan eukaristi moduan egote honek Beraren egintza eraberritzailea onartzea eskatzen digu, Bera gurtzeko eta eskerrak emateko jarrera, Kristorekin elkartasunean bizitzeko gogo bizia.

137. Parroki elkarteei Eukaristiaren gurtza indartu eta aberastera dei egiten dizuegu, sagrarioari bisitak, Jaunaren aurreko otoitza, Eukaristiaren gurtza eta gure Jaunaren bedeinkapena zainduz. Fededunek eskubide dute otoitz era hau bere sakontasun eta aberastasun osoan ezagutzeko. Eukaristiaren gurtzarako Elizkizun Liburuko argibideetan hainbat iradokizun aurkitu ahal izango duzue gure Jaunaren Sakramentuaren aurreko otoitz hau kantatu, otoitza, Jainkoaren Hitzaren irakurgai, esaldi labur eta isilunez janaritzeko⁶.

Otoitz egiten irakatsi

138. Azkenik, zuen pastoral ahaleginari adorea eman nahi diogu otoitz egiten irakats dezazuen. Egia da, pertsona Jainkoari zabaltzen ez bazaio, ez dagoela pedagogiarik errezatzen irakatsiko dionik. Baina, egia da, baita ere, fededunek beharrezko dituztela pausoak ematen lagunduko dieten argibideak, gidaritza eta kanpoko laguntasuna.

- ***Parrokia***

139. Parrokian, lehenik eta behin, liturgi heziera dago zaindu beharra. Fededunek ezin dute ospakizunetan era ohartu eta sakonean parte hartu, liturgiaren zentzua, Eukaristiaren egitura edota zenbait keinuren esanahia ezagutzen ez badituzte. Pedagogi lan honek etengabea izan behar du, eta ez du kanpoko gau-

⁶ Ikus *Ritual de la Sagrada Comunión y del Culto a la Eucaristía fuera de la Misa*, Coeditores Litúrgicos (Madrid 1974), 95. zenb.

zetan bakarrik geratu behar. Jainkoari eta gauza sakratuei buruzko heziera eman behar da; ospakizunaren espirituan sartzen lagundu; elkarte-otoitzean era bizian parte hartzen erakutsi, eliz zentzua sortuz.

140. Liturgi hezierarekin batera, parrokiek ahalegin handiagoa egin behar dute, fededunei beren otoitz eta barne-bizitzarako ahalbide bereziak garatzen laguntzeko. Hona hemen iradokizun batzuk sormena esnarazteko: otoitz pertsonalerako nahiz talde txikien otoitzerako aproposa izan daitekeen kapera edo otoitzlekuren bat egokitu; otoitz egiteko lagungarri izan daitezkeen bibliak, salmoak, otoitz-gaiak, liburuak eta beste lagungarriak jarri fededunen eskura; une egokietan otoitz-elkarketetarako deiak egin; otoitzerako biltzen diren taldeak zaindu eta adoretu.

141. Baina, batez ere, haur eta gazteak benetako otoitza egiten erakustera eman behar ditugu geure ahaleginak. Katekesi-talde guztietan era berezian zaindu behar dugu haurren otoitz pertsonala eta taldekakoa. Fede-hezierako eta Sendotzarako prestaera-prozesu guztietan erakutsi behar diegu gazteei otoitz egiten. Fedea ez da ikasgai batzuk irakaste hutsarekin esnarazten, ezta hezieragai batzuk azaldu, talde-dinamika batzuk erabili edota kristau-konpromisora dei egite hutsarekin ere. Otoitza eta Jainkoarekin topo egitea dira guran fedea esnaraizi eta indartzen dutenak. Gazteentzat elkarketaldiak, erretiroak, otoitzaldiak eta Eukaristiak antolatzen jarraitzera bultzatzen zaituztegu. Gure gazte-pastoraltzako hutsune handia izango du, baldin eta gazteei Eukaristia ezagutzen eta bertan parte hartzen erakusten ez badiegu, eta otoitz pertsonalaren esperientziara eramaten ez baditugu.

- ***Otoitz-taldeak***

142. Era askotako eta sentiera desberdineko otoitz-taldeak ari dira sortzen gure artean. Adiskidetasunetan pastoral konpromisoaren loturaz elkartuta dauden pertsonak dira; baina, batez ere, barne-bizitza hobeto zaindu nahia da lotzen dituenak. Zenbait kristaurentzat talde hauek benetako “otoitz-eskola” dira; hor ikasten dute Jainkoaren Hitzaren entzuten, barne-isiltasuna edota era desberdinetako otoitza egiten. Gehiago oraindik. Elkarte osoaren zati direla oharturik jarduten badute, beren baitan itxirik geratu gabe, “legami” moduko zerbait izan daitezke talde hauek kristau-elkartean otoitza eraberritzeko. Hauen emaitza era askotakoa izan daiteke: Jainkoarekin harreman biziagoaren bila dabilzan pertsonak taldera gonbidatu eta onartu; parroki elkarte osoaren otoitzean parte hartu eta arnasberitu; beren esperientzia eskaini iradokizunak eta ekimen berriak proposatuz.

- ***Elkarte kontenplariak***

143. Bada gaur egun gertakizun bat, ikusgarria eta masiboa izan gabe ere, adierazgarria dena. Mordoska dira monasterioetara eta elkarte kontenplariengana hurbiltzen direnak. Ez ditu jakinmin hutsak eramaten; beren bihotzak amesten duen “zerbait” desberdina aurkitu nahian dabilta. Ez dira sinesmen sendoko kristauak bakarrik; fede ahul eta duda-mudakoa dutenak ere hurbiltzen dira; baita erlijio-bizitzatik urrunduta dauden pertsonak ere. Hor “Jainkoaren gogoa” ageri dela iruditzen zaigu, batzuetan oso motela eta zalantzazkoa bada ere; baina hor bere lanean ari da Espiritua.

144. Elkarte kontenplalariok zeuen buruei galdera egitea nahi dugu, ez ote duzen gaur egun Jainkoaren dei hau entzun behar. Ez da inor zuek baino baldintza hobetan dagoenik, pertsona hauei Jainkoaren zentzua eta Haren presentziarena berreskuratzen laguntzeko. Egia da Jainkoaren misterioak ezkutatu egiten duela presentzia hori, baina sumatu ere egiten duzue zuek era egiazko eta bizian. Hurbil zaitezte apalki senide hauengana eta esan zeuen bizitzarekin: “Jainkoa bada; nik aurkitu dut.” Horientzat laguntza izan zintezkete Absolutuaren gosea eta barne-bizitzaren gogoia esnarazteko; giza hitzekin ez galdetzen ez erantzuten ez duen, baina gure bizitzan dagoen eta gauzen, gertaeren, pertsonen eta bizitza osoaren bidez isilki hitz egiten duen Jainko horri entzuten erakusteko.

145. Zuen ondoan oinarrizko jarrerak ikas ditzakete Jainkoarekin topo egitera prestatzeko: Haren graziaren erabateko beharra; Harekiko harreman xumea; Haren jarduera misteriotsuaren erritmoak eskatzen duen pazientzia... Zehatzago esanda, kristau-otoitza erakuts dezakezue. Ekialdeko erlijioen ezaupideak eta yoga edo zen bezalako metodoen zabalkundeak transzendentziaren esperientzia berriak bilatzera erakarri ditu batzuk, kristau-alorretik kanpora. Zuen elkarreetan ikasi behar dituzte kristau-otoitzaren aberastasuna eta balioak: Jainko pertsonalarekiko elkarrizketa; Jainko Aitarekiko harremana, Semearen bidez eta Espirituaren eraginez; Jainko Hirukoitzaren esperientzia; Liburu Santuan Jainkoaren Hitza entzutea; Eukaristiaren eta liturgi urtearen esperientzia.

Ez daukazue zeuen espiritu-bide kontenplalari berezia azaldu ezinik: san Agustinen Jainko-bilaketa; liturgi ospakizunaren esperientzia san Benitoren espiritu-bidetik; Gurutzeko san Joanen edota santa Teresa Jesusenaren otoitz kontenplalaria; san Bernardoren Jainko-gogoia, edota Asisko san Frantziskoren bihotz pobre, senidearteko eta ebanjeliozkoik Jainko Kreatzailearen goralpena. Horrelako ekarpena denontzat da aberasgarri.

146. Zuen zerbitzua era askotara zehaztu daiteke. Lekua eta denbora eskain diezaiekezue pertsoneri edo taldeei Jainkoaren bilaketarako eta patxadaz eta isiltasunean otoitz egiteko. Zeuen ospakizun eta otoitzetan parte hartzeko egokiera eman. Laguntza apalak eskura jarri zuen etxeetara hurbiltzen direnentzat (bibliak, otoitz-liburuak, salmoekin otoitz egiteko argibideak...). Argi eta norabide bila dabilzanehi harrera ona egin eta eurekin hitz egin. Honek guztiak hobeto Jainkoaganatuko ditu zerbitzu hori zeuen kontenplalari izaeraren arabera egiten baduzue, zeuen bizitzaren sakontasuna galdu gabe, alegia, eta zeuen karismari ez dagozkion moduko ekintzetan erori gabe.

• *Apaizen otoitza*

147. Ez dugu Idazki hau bukatu nahi gure elkarreetako apaizei dei bihozkor bat egin gabe. Dei hau geure buruei egiten diegu beste inori baino lehen. Ez diogu besteri lagundu ahal izango bere otoitza suspertzen, geurea biziberritzen ez badugu. Gotzainok eta apaizok gehiago eta hobeto zaindu behar dugu geure otoitz pertsonala: orduen otoitza, Bibliaren irakurketa pertsonala, kristau-gogoeta, Jaunaren aurreko otoitza. Kristau-elkarreetek sumatu behar dute Jainkoagandik eta Jainkoarentzat bizi garela, eta gure pastoral ekintza otoitzean janaritzen dela. Otoitza ez da, oraindik denbora geratzen bazaigu, azkenik egin behar duguna; aurren-aurrea egin behar duguna baizik.

Garizuma bihozberritze-aldia da. Pazkoa, berriz, bizitza berri batera “berpiztera” egiten zaigun deia. Izan dakigula Jainkoagana itzultzeko aldia gure otoitza biziberrituz. Gaur egun ere entzun dadila gure elkarte eta lekuko Elize-tan san Pauloren aholku-deia: “Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe. Eman eskerrak beti; hau da zuentzako Jainkoaren nahia Kristo Jesusengan” (1 Ts 5,16-17).

Iruñea eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz
1999ko otsailaren 17a
Hausterre-eguna

- ✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Rikardo**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Mikel**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Karmelo**, Bilboko Gotzain Laguntzailea